

ttipi-ttapa



GAIXOTASUN ARRAROEI TIRAKA

Igande honetan izanen den Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren harira, lekukotasunak bildu ditu TТИPI-ТТАПАК: hertze laburren sindromea duen Berako Nahiaren –irudian ezkerretik hasita bigarrena– eta Prader Willi sindromea duen Aranoko Eñauten gurasoen bizipenak. / 10

WWW.SOMOSNUPA.ORG

Emakumeen Egunerako prest

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi izanen dira. Tartean, eskualdeko ekimena Sara-Zugarramurdin izanen da.

SINADURAK



MIEL M.
ELOSEGI
IRURTIA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



NEREA
ZABALETA
LASARTE / 4



MIKEL
RODRIGUEZ
LANDA / 4



Arantzako Ana Eliza Rodrigues Gomesekin modeloen munduaz solasean / 8



Dani Martirenak 'Amonarenean Kea' lana argitaratu du Ana Ibañezekin / 26



Imanol Juanikotena Elbeteko alkatearekin kontu kontari / 40

 ttipi txartela

Josune Sorando Odozola
72873152-A
2021/04
372

ZOZKETA / 56

BERA LESAKA

Agenda 2021

**OTSAILA
MARTXOA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

OTSAILA

27

LARUNBATA

IRTEERA
ARBOLAREN
EGUNA

Arbolak landatu
09:00 Plazan
Laguntzaileak Lesakako Udala, Arcelor Mittal

LESAKA

27

LARUNBATA

EKITALDI FAMILIARRA
TXOMIN &
TXISTUMAN
DESKONTZERTUAN

18:30 Kultur Etxean
Sarrera 3€ (sarrerak aitzinetik Agara prentsan salgai)
Iraupena 60 min
Argibide gehiago www.txistuman.com
Antolatzailea Ricardo Baroja eskola publikoko guraso elkarte
Laguntzaileak Berako Udala eta Berako Kultur Batzordea

BERA

MARTXOA

27

LARUNBATA

ANTZERKI TAILERRA
"ILUNTZEN"
MAIRU ANTZERKI
TAILERRA

18:00 Harriondoa Kultur Etxean
Sarrera 5€ (Xagu / Telletxea)

LESAKA

1

ASTELEHENA

HITZALDIA
LESAKAN
ETXEBILA

Egungo egoeraren argazki bat eta ikerketaren ondorio nagusiak
18:00 Harriondoako Txokobikoa Hitzaldian Nafarroako Gobernuko etxebizitza zuzendari nagusia den Eneko Larrartek, ikerketaren egileak, Garazi Condek eta Lesakako alkateak, Ladis Satrustegik solastatuko dira.

LESAKA

MARTXOA

6

LARUNBATA

DANTZA GARAIKIDEA
TRANSITOS
(AMICO KONPAINIA)

18:30 Kultur Etxean
Sarrera 6€
Iraupena 70 min
Antolatzailea Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua

BERA

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa

32.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

♀

%60,3

EMAKUMEAK

♂

%39,7

GIZONAK

ADINAREN ARABERA

Urte	14-19	20-24	25-34	35-44	45-54	55-64	+64
%	11,2	1,8	13,9	14,1	18,9	15,3	24,7

IKASKETA MAILAREN ARABERA

%16,3

Oinarrizko ikasketak

%41,2

Unibertsitatea

%10,7

Oinarrizko batxillergoa

%31,8

Goi mailako batxillergoa

Diario de Noticias 10.000 irakurle

Diario de Navarra 7.000 irakurle

Bertze batzuk 5.000 irakurle

Gara 1.000 irakurle **Berria** 1.000 irakurle

DATU ITURRIA: CIES, 2020ko metatuak

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA

Etzetik hasita

Edonori galdetzen badiogu desagertzeko arriskuan dauden baleak, tigreak edo urrutiko edozein espezie kontserbatu behar ote den, nekez aurkituko genuke ezezkoa esanen lukeen inor. Baina eskatzen badugu gure herrietako edozein jarduera mugatzea bioaniztasuna kontserbatzeko, gauzak zeharo alda litezke. «Lanak hilabetez atzeratu amuarrainak umatzen ari direlako? Mendi lasterketa desbideratu ezagutzen ez dugun landare bat babesteko? Aizu, badaude ingurumenari askoz ere kalte handiagoa egiten dioten beste jarduera batzuk! Naturzaleak, gara, gure jarduera aspaldikoa da eta eskualderako diru-iturri garrantzitsua da!».

Antzeko erantzunak maiz entzuten direlako da pozzarria naturaren kontserbazioaren alde aurrerapausoak ematen dituzten eragileak topatzea: baso-jabeak, alkate eta zinegotziak, eta edozein arlotan diharduten ekintzaileak, euren esku dagoena egiteko prest. Azken finean, ulertu dutelako ingurumena zaintzea denon zeregina dela eta hori eginda, geure burua eta atzetik datozenena zaintzen ari garela.

«POZZARRIA DA KONTSERBAZIOAREN ALDE ARI DIREN ERAGILEAK TOPATzea»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Egia ur azalera

Torturaren aurkako egunean hil da Rodriguez Galindo guardia-zibila... Karmaz aritu dira batzuk sare sozialetan. Ordu batzuk lehenago, Mikel Zabaltzaren arrebak bere anaiari gertatutako argibideak eman zezakeena larri zegoela iragarri zuen Lesakan egindako ekitaldian. 35 urtez argitu ez dena ur azpiko iluntasunean segituko duela dirudi.

NABARMENTZEKOAK



JUNKAL OTXOTORENA ZINEGOTZIA



IMANOL ETXEBERRIA ARIZKUNGO ALKATEA

Hileta pertsonalizatuak egiteko bidea ireki du Leitzako Udalak, Herri Aretoa horretarako emanen eta laguntzeko gida prestatuz. Otsailaren 4an aurkeztu zuten Junkal Otxotorenak.

Otsailaren 12an egin zuten Arizkungo alkatea aukeratzeko bozketan. Imanol Etxeberria eta Valentin Quintanaren artean aukeratu behar izan zuten herritarrek. Etxeberriak botoen %98 lortu zituen.

ATZERA BEGIRA



2011-02-17 · TTIPI-TTAPA · 536 zk.

Duela 10 urte Asiako liztorren 11 kabi...

Asiako liztorrak erlezainen artean sortu duen ezinegona oraingoa ez den seinale da duela hamar urte TTIPI-TTAPAK argitaratu-tako erreportajea. Eskualdeko erlezainak kezkatuak mintzatu ziren Asiako liztorra hedatzen ari zela ikusita. Bildutako datuen arabera, 2011n garai honetan, hamaika kabi aurkitu zituzten. Garai hartan kontu berria zen eskualdean... Geroztik zenbat izan diren jakitea, ordea, zaila da. Gaia hurbiletik ezagutzeko, batetik, Gabi Fuentes eskualdeko basozainen buruarekin bildu zen TTIPI-TTAPA eta honek liztorren inguruko hainbat azalpen eman zituen. Bertzetik, Santiago Mitxelorena (Etxalar), Holger (Ezkurra), Pello Berro (Ornoz-Mugairi) eta Jose Ramon Jimenez (Goizueta) erlezainak elkarrizketatu zituen.



Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidar Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte

2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€





KOLABORAZIOAK

NEREA ZABALETA LASARTE

Matilda efektua

Irudikatu zientzialari bat: unibertsitateko irakasle, laborategi bateko zuzendari, bata zuriz jantzita bere laborategiko ikasle eta langileekin esperimenduak diseinatzen, bere arloko aldizkari zientifiko onenetan argitaratzen, jakituria sortzen gizaratearen onuran. Orain, galdetu zeure buruari: fisikoki nolakoa irudikatu duzu zientzialari hori? Gizonezkoa, zuria, heldua eta serioa? Albert Einsteinen gisakoa, ezta? Hori da gure aurreiritzien arabera zientzialari baten irudia. Ikerketa txiki bat eginez gero, ikusiko duzu hori ez dela egia, unibertsitateetako irakasleen artean genero, etnia, adin eta itxura anitzeko pertsonak aurkituko dituzu. Hala ere, gehiengoek gure zientzialariaren irudiarekin bat egiten dute, gizonezko zuri eta helduak baitira.

Zure hurrengo galderak honakoa izan beharko luke: zientzialariaren estereotipoa errealitatearen isla al da? Edo alderantziz, estereotipo horrek gure aukerak determinatzen al ditu, ondorioz zientzia aniztasuna murriztuz? Hala, gazteek ez dutenez ikusten errepresentaziorik zientzi lanbideetan ez dute karrera hori hautatzen, eta ondorioz, zientzialari gehienek estereotipoa betetzen dute. Zirkulu biziosoa bat bilakatzen da.

Generoaren adibideak ederki islatzen du fenomeno hau.

«'TALENTUAK EZ DU GENERORIK' MEZUA ZABALDU BEHAR DUGU»

Garrantzitsu askotan emakumeek parte hartu dute baina ez dute aitortzen izan, eta beraz, zientziako 'izen handi' guztiak gizonezkoak dira. Ondorioz, komunikabideetan, eskoletan eta liburuetan gizonezko zientzialariak bakarrik agertzen dira, eta gure subkontzienteetan pentsatzen dugu ezingo garela zientzialari arrakastatsua izan emakumezkoa izanda.

Matilda efektuaren jatorria konplexua da eta gure gizarateko genero diferentziaren arazoaren isla da. Emakumeek barrera asko aurkitzen ditugu zientzia karreran aurrera egiteko eta postu altuetara iristeko, eta ondorioz itzalpean gelditzen gara. Barrera horiek bitan sailkatzen dira: kanpokoak eta barrukoak. Kanpoko barrerak ezagunak ditugu: soldata diferentzia, gizonezkoen iritziari garrantzi gehiago ematea, emakumeen autoritatea ez onartzea, eta abar luze bat. Barruko barrerak ez dira hain erraz antzematen eta gure heziketan dute jatorria. Emakumeek pertsonalitate konkretu bat eduki behar dugula irakatsi digute: atseginak, umilak, ahots tonu baxuan hitz egin beharra dugu, gure inguruko arduratu beharrak gara. Pena da talentu handiko emakumeak itzaletan gelditzen ikustea gizarateak erakutsi dielako beraiek ez luketela borrokatu behar karrera arrakastatsu bat izateko.

Bada garaia honi buelta emateko eta horretarako mezu bat zabaldu behar dugu: TALENTUAK EZ DU GENERORIK!

Matilda efektua emakume zientzialarien lorpenak aitortzearen kontrako joera da eta XIX. mendeko emakumeen eskubideen aktibista Matilda Joslyn Gagegatik deitzen da horrela. Historian zehar egin diren aurkikuntza



MIKEL RODRIGUEZ LANDA

Inorena ez den lurra

Lehenbiziko Mundu Gerran, saratarrek, senpenterrek eta ainhoarrek Gerla Handia bezala ezagutzen duten horretan, bazen toki bereziki beldurgarri bat gudariarentzat, inork zanpatu nahi ez zuena: etsaiaren eta norberaren trintxeren artean gelditzen zen eremua zen hori, ingelesek *No Man's Land* erran ziotena; hau da, *Inorena ez den lurra*. Ez haiena, ez gurea. Inork gobernatzeko duena, hortaz, inori ardura ez diona. Abandonatutakoa, tartean dagoena.

Erdian gelditzen da *Inorena ez den lurra*, ez haiena, ez hauena. Zentrotik urruti, eta, aldi berean, bi punturen arteko zentroan. Patu kaxkarra *Inorena ez den lurra* egon behar duenak, ez baitira hartaz kezkatuko alde banatan daudenak, eta norbere kabuz bilatu beharko baitu babak eltzetik ateratzea.

Frantziako Gobernuak erabaki du Euskal Herrian errepide batzuk ixtea, «terroristak» pasatzen ahal omen direlako horietatik, edo. Horietako errepide batzuk Bortzirietan, Baztanen eta Xaretan daude, bizi osoan herri batetik bertzera joateko erabili direnak, kanpoko agintari batzuek erabaki duten arte itxi egin behar direla (nork daki, Parisen edo Lyonon seguruago senti daitezten). Eta bertako herritarren ordezkariak Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu diote-

«KONTU NEKEZA DA 'INORENA EZ DEN LURREKOA' BEZALA TRATATUA IZATEA»

nean arazo hori moldatzen saiatzeko, erantzuna izan da gobernuak ez duela kezkarik Frantziak hartu duen erabaki horrekin. Lizuniaga, Lizarrietta eta Berrueta urrutiegia gelditzen dira Iruñetik. Eta, horrela, aldi horretan guzian bertze errepide bat ere itxita egon da. Hori Frantziak ez, hori Euskal Herriko gobernuetako batek itxita; Gipuzkoa-koak, hain zuzen. Duela urte gutti eraiki zen N-121 berriko zubi batzuek «egiturazko arazoak» omen zituzten, eta Bidasaldeko komunikazio arteria nagusia itxita eduki dute lau hilabetez, informazio gehiegirik eman gabe. Hor ibili behar izan dira eskualdeko ordezkari politikoak, bertze behin, Donostiari eta Iruñeari konponbide bat eske, atentzioa exijitzen, eta bertze behin itxura eman du «esperatu momentu bat, eta nire idazkariak zita hartuko dizu» izan dela erantzuna. Itxi zuten bezala ireki dute errepidea, errandakoa baino hilabete bat geroago, eta herritarrek fidatu beharko dira iraganean ez dutela arriskurik izan haien ibilgailuekin Bidasoan bukatzeko, «egiturazko arazo» horiek zirela eta. Lehendik ere arrisku aunitz eta atentzio gutti ez bazituen errepide horrek, arazo bat gehiago zerrendarako.

Izan ere, kontu nekeza da Nafarroakoak izan eta Iruñetik urruti egotea, baina Gipuzkoako hiri nagusiak, ordea, hurbilago izatea. Kontu nekeza baita Iruñeko eta Nafarroa hegoaldeko elite politikoak gorroto duen hizkuntza batean mintzo diren herrietan bizitzea, eta elite horien alderdiek duten babesa ia anekdotikoa baino ez izatea. Kontu nekeza baita, azken finean, *Inorena ez den lurra* bezala tratatua izatea.

11 GALDERA LABUR

MIREN ETXEPETELEKU LESAKAKO INAUTERI-ZALEA

«Mozorroa prestatzeko prozesuarekin aunitz disfrutatzen dut»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Saltsa guztietan ibiltzen den Lesakako neska gaztea.

Zein dira zure zaletasunak?

Dantzatzea aunitz gustatzen zait, baino, batez ere, familia eta lagun artean denbora pasatzea.

Noiztik parte hartzen duzu Lesakako inauterietan?

Tiki ttikitatik, gurasoak hagitz inauteri-zaleak izan dira. Hasieran ikastolarekin ateratzen nintzen eta pixka bat koskortzean kuadrillakoekin.

Zein mozerro janzten duzu?

Mozorro gehienetan ibili naiz. Urte gehienetan mairuz jantzi baldin banaiz ere, lehengo urtean zakuzahar ibili nintzen lehenbizikoz. Bertzalde, urte batzuk daramatzat inauterie-

tako astelehenean fraindarrekin ateratzen.

Zer dira mozerro hauek?

Zakuzaharren oinarria, izenak erraten duen bezala, zaku zaharrak dira: hankatan bana paratzen dugu eta enborrean bertze bat, belar idorrez bete. Aurpegian zapi xuria, lepoan koadrozko zapia, buruan lastozko zapela eta eskuan pizontzia. Mairuen arropa oihal zati koloretsuekin egiten da. Fraindarez ateratzeko berriz, galtza xuriak, blusa beltza eta boneta berdea janzten dugu.

Mozorroak erosten dituzue?

Normalean gu egiten saiatzen gara, etxeko gauzekin edo ingurukoei eskatuz. Mozorroa prestatzeko prozesua ere polita da eta aunitz disfrutatzen dut.



Zenbat denbora lehenago hasten zarete antolaketa lanetan?

Mozorroaren arabera. Zakuzaharren bilera aste pare bat lehenago antolatzen du Arrano elkarteak. Beraiek arduratzten dira zakuak, pixontziak, belarra eta josteko materiala banatzeaz eta zerrenda osatzeaz. Fraindarrak ere pare bat aste lehenago biltzen gara taldeak eta lanak banatzeko.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Zaila da egun bat aukeratzea, igandea eta astelehena aunitz

disfrutatzen ditut eta astearte ere berezia da.

Eta gutxien?

Hurrengo eguneko burukomina.

Zerk egiten ditu bereziak Lesakako inauteriak?

Ohitura aunitz biltzen dituzte Lesakako inauteriek: *arrautze-arrautze*, Mairu eta zakuzaharrak, goitarrak, fraindarrak... Ohitura horien inguruan bildu eta sortzen den herri giroa hagitz polita eta berezia da.



Merkealdia

1951tik
Casa Cambra
Ientzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Izan zirelako gara, garelako izanen dira**NAHIA SENPER MAZIZOR**

Gauza jakina da 1936. urteko abuztuan Beratik zenbait familia ideia politikoengatik kanporatu zituztela, euren artean Aldazabal-Gorria familia, nire *amoñaren* familia. Kanporatzeak, atxilotetak, fusilamenduak... 36ko gerran egunerokoa izan zirela erran dezakegu. Urte anitzez indarraren eta odolaren poderioz ahantzarazitako istorioak izan dira horiek guztiak, baina gure historia-ren parte dira.

Gaur egun, Aldazabal-Gorria familiako kiderik ez dago gure artean. Nire *amoña* agurtzen azkena izan da, 2021eko urtarriaren 28an utzi baikintuen. Historiak nahiz memoria historikoak gure egunerokotasunean eta etorkizunean duten garrantzia azpimarratzeko, lerro hauek idaztera animatu naiz.

Oroimen historikoa iraganarekiko lotura ez galtzeko gizataldeek eginiko ahalegina dela erraten da, iraganeko egiazko eta balizko gertaerak biltzen dituen, iragana balioetsiz eta errespetatuz.

Berako herriak zenbait ekimen burutu ditu memoria historikoa berreskuratzeko; horren adibide garbia 1936. urteko biktimei egindako omenaldia dugu, haien mina aitortuz eta erreparazioa zein justizia aldarrikatuz. Nire *amoñak* eta bere ahizpak omenaldian parte hartzeko aukera izan zuten eta biziki eskertu zuten. Hala ere, biktima ugari inolako errekonozimendu, erreparazio eta justiziarik gabe joan direla agerian utzi nahiko nuke eta, hortaz, oraindik aunitz dugu egiteko.

Idatzi honen bidez, *amoñari* euren historia ezagutaraztea eskertu nahiko nioke, bere ausardia, bere indarra. Izan ere, ematen du gure herrian ez zela halakorik bizitu, gehienak bueltatu ez zirelako, bueltatu zirenek eta bertze hainbertzek beldurra zutelako edota bertze batzuk sarraskiaren partaide izan zirelako.

Hitz hauek aprobetxatu nahi ditut me-rezi duten omenaldia eskaintzeko eta askatasunaren alde egindako borroka eskertzeko.

Amoña, gure oroimenean, bihotzean eta irribarrean izanen zaitugu betiko. Izan zirelako gara, garelako izanen dira.

Emakumearen nazioarteko eguna**MENTXU PEÑA LIZARAZU**

Heldu zaigu 2021. urteko martxoaren zortzia, hau da, emakumeon eguna dela oroitzeko eguna. Joan direneko hamaika urte hauetan Bortzirietako emakumeok egun hori probestu dugu hara non eta inguruan ditugun mendietan barrena gozatu ahal izateko. Aurten hamabigarrena izanen genukeen, ez balitz suertatu dugun osasun krisi izugarri hau.

2009. urtean bildu ginen zenbait emakume Igantzín,

Nolatan, ordea? Bada, mendian bertze emakumezko batzuk burututako mendi espedizio baten berri eman zitugutelako, eta haiek prestatutako bideo emanaldi horrekin gozatzeko aukera izan genuelako. Emakume hauek lehenago Mont Blanc mendia igoa zuten, mendiak dituen hiru ibilbideetatik eta hurrengo Elbrus mendira joandakoak ziren. Emakume hauek mendizaleak izateaz gain, emakume askeak ere zirela erakutsi nahi izan zioten bere buruari lehendabizi eta gero gainontzeko emakumeoi ere.

Igantzín izan zen emanaldia, eta horren ondotik solasean arituz, pentsatu, eta erabaki genuen polita eta beharrezko izan zitekeela emakumezkoa ahalduntzen gainean sakontzeko «gure denbora hartzearen» gainean batez ere. Gizonak asteburuetan, dela bizikleta, mendia, lasterketa ibiltzen hartzen duen bezala bere denbora, guk geuri ere gauza bera egiteko tenorea ailegatu zaigula.

Halaxe hasi ginen bada martxoaren 8aren inguruko igandea guretzat

hartzen eta mendian barrena pausuz pausu, geure motxila prestatu, oinetako egokiak, jateko pixka bat ere bai, eta aire!

Lehenbizikoan Igantzín bildu ginen 15 emakume gogotsu maldan gora abiatu ginen. Hainbertze gozatu genuen non hurrengo urtean Beran proposatu eta bertan txangoa egiteko-tan geratu ginen.

Horrelaxe aurtengora arte, hau da, hamabigarrenera iritsi arte.

Aurten, ordea, 15 mendizale izatetik 70 ingurura ailegatu garen honetan, ezinezko izanen dugu, horrelako multzoan bildu eta, mendian bada ere, elkarrekin ibiltzea.

Beraz, bakoitzaren herrian bizpahiru edota lau emakume bildu eta mendian bueltaxka bat emanaz ibiltzea ez da gaizki etorriko geure buru lanbrotsu honi pozgarri izanen den argitxo bat piztea..

Heldu den urtean izan beharko du, hamabigarrenak, eta Beran!

*Denak pozik, alai
Ibiliko gara jai,
Beraz, ahalduntzen jarrai.
Merezi baitu ahaleginak
Jarrai dezagun bizi-bizi
Helburua buruan jarri
Eta hari segi
Merezi duelakoan
Hala bainago, bai.*

Gora Bortzirietako emakume mendizale ahalduntsuak!

Auzo lotsa 2: errukia**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Txikia nintzenez, noiz edo noiz Iruñera joaten nintzen amarekin, bera erosketa edo mandatu batzuk egitera zihoan bitartean, eta, hango kaleetan pasatzean edota hiribusetan ibiltzean, behin baino gehiagotan, honako iruzkin hauek eta antzekoak entzuten nituen, ozen samarrak eta batere disimulurik gabe, asmo txarrik gabekoak, noski, baina esan esaten zituzten, batez ere, emakumezkoek, haien artean,

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

erruki eta urrikalmen sentimendu handiz esanak betiere: «Begira, begira, gizajo horri! Ze pena ematen duen! Jainkoak lagun diezaiela bere gurasoei! A ze zama eta madarikazioa haren guraso gaixoentzat! Ez niken beraien larruan egon nahi!».

Bai, bizitzan zehar, oso sarritan entzuna naiz halako lore eta gozokeriak, baina, egia esateko, ni inoiz ez nintzen gizagaixo sentitzen eta ez nuen ongi ulertzen, zergatik esaten ote zituzten halako gauzak nitaz. Suposatzen dut, gaur egun ez lizkidaketela hain erraz esanen, baina urte haietako mentalitatea halakoxea zen, eta, ondorioz, halaxe pentsatzen eta hitz egiten zen.

2021a euskara erdigunean jartzeko urtea izan dadin

URKO AIERBE SARASOLA | EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EKO KIDEA

Pandemia gizadiaren historian mugarri garrantzitsua izango da, eragin sakona izan eta abagune erabakigarrian gertatzen ari delako. Pertsonon izatea, humanitatea eta mundua bera sakonki eraldatzen hasiak diren abagunea. Horrek hizkuntzaren ikuspegitik ere eragiten gaitu. Euskal Herria euskalduntzeko prozesua burutzetik urrun gaudenean, pandemiaren eta aldaketa-abagunearen astinaldiek prozesu horretan kostata eraiki ditugun zutabeak dar-dar batean uzten ari dira. Euskalduntzea ondo ez doanaren adierazleak begi-bistan ditugu, pandemiarekin okerrera egin duten adierazleak. Horrela, pandemiak aukeratzeko atakan jarri gaitu: azken hamarkadatan aurreratutakoa irabazpidean jartzeko normalizazio-prozesuan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo esanguratsua egin, ala, hori egin ezean berriz ere atzerako joeran erori.

EHEren ustez jauzi hori egiteko hizkuntza-politika berria behar dugu. Horrek eskatzen du eragile guztiek beraien jardunaren erdigunean eus-

kara kokatzea, euskaratik eta euskaraz pentsatu eta aritzea behingoz.

Euskalduntzea bizkortzeko borroka berrindartzea euskaltzaleon erronka izango da aurten. Euskaldunon hizkuntza-eskubideen eguneroko urraketak agerian utzi eta euskaraz bizi ahal izatea oztopatzen digun zapalkuntza estrukturala salatu eta gainditzeko euskaltzaleen aktibazioa sustatzearen erronka.

Hori guztia estatuen kanpo esku-hartzerik gabe egin behar denaren aldarrikapena ere areagotu beharko dugu. Hori baita pairatzen dugun hizkuntzagaizkaren muina: estatuen inposizio linguizida. Euskal herritarrok soilik erabaki behar dugu zein nolako hizkuntza-politika garatu nahi dugun Euskal Herrian. Horri begira EHEk ekarpen garrantzitsua egingo du aurten. Ilusioa eta grina berreskuratu eta euskalduntzearen aldeko borroka berrindartzeko urtea izan dadin 2021 hau.

BOTA BERTSOA

NINBE
URTXEGI
URRA

IGANTZIKO
BERTSOLARIA



Inauteriak

Doinua: Ai, Ixabel, Ixabel

*Ezohiko baina gogoz
jaio da eguna
balkoietan kolore
ta elkartasuna
nahiz kanpotik jartzen den
trapu zahar bilduma
azaleratzen dute
barrenin duguna.*

*Nahi ta ezinaren
arteko entzierroa
ta eguzki izpitan
sortzen den lanbroa
beldurtia, haserre
ausarta, harroa
zein da jarrera egoki
baten mozorroa?*

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

«Sarean gero eta baliabide gehiago daude familiarekin euskaraz gozatzeko; euskara bultzatzeko eta maitatzeko. Gainera, familia mistoentzat ere zuzenduta dago webgunea [xaldunkortin.educacion.navarra.es]; azalpenak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez baitaude (...) 2000tik ondarea batzen aritu ondotik, 2014an, CD bat (musika eta kantuekin), DVD bat (Porrotzekin batera ikasteko) eta liburu bat argitaratu genituen. Erabileraren arabera sailkatu genuen materiala, eta aldaera bakoitza zein herritan jasotakoa den zehaztuta agertzen da. Eskuekin jolasteko abestiak, trostan aritzeko kantuak, memoria lantzekoak... Eta orain, hori guztia Labrit Ondareak egindako



webgunean batu da. Kantuak eta kontuak, ipuinak, haurren hizkera... Dena dago jasota eta antolatuta».

MAITE LAKAR

EUSKOKULTUR FUNDAZIOKO KIDEA,
LEGASARRA | GURASO.EUS



«Modelo izateak sakrifizio aunitz eskatzen ditu»

ANA ELIZA RODRIGUES GOMES ARANTZAKO MODELOA

16 urte zituenetik pasarela aunitz zapaldu ditu, aldizkarietako azaletan eta jantzien katalogoetan agertu da. Bidean ikusi eta ikasi duenez, gustatu zaionaz eta gustatu ez zaionaz mintzatu da

G. PIKABEA | ARANTZA

Brasilen, sorterrian, eman zituen modelo gisa lehenbiziko pausoak, eta 15 urterekin, Euskal Herrira etorri zenean, heldu zion gustuko zuenari, maite duelako «arropa erakustea» eta «hagitz ongi» sentitzen delako «pasarelan». Hamar urte beranduago, egindako ibilbideaz eta modan «itxurak duen gehiegizko garrantziaz» solastatu da ТIPI-ТIТАРЕkin Arantzan bizi den Ana Eliza Rodrigues 25 urteko gaztea.

Noiz eta nolatan hasi zinen modelo munduan?

Nire lehenbiziko desfileak 11 bat urterekin egin nituen. Brasilen bizi nintzenez, eskolan, inguruko dendetako jantziekin udaberriko desfileak egiten ziren eta han hasi nintzen. Gero, 15 urterekin, Arantzara etorri nintzenez, Donostiako modelo agentzia batean apuntatu eta urtebeteko ikastaroa egin nuen. Hori bukatutakoan han eta hemen modelo hasi nintzen.

Zer ikasi zenuen modelo eskolan?

Pasareletan nola ibili, argazkigintzan nola jokatu eta posatu, argazkilariak edo diseinatzaileak erakutsi nahi duen sentimenduak nola adierazi, makillajea, azalaren zainketa, nutrizioa, goi-mailako joskintza, oinarrizko joskintza...

Modelo lanak nora eramán zaitu?

16 urtetik 22-23 urtetara aunitz ibili nintzen. Tarte horretan, aldizkarietako azalak, emaztegaien, bikinien eta bertzelako arropekin katalogoak, ferietan

ko standetan modelo lanak eta pasarelak egin nituen. Denetarik pixka bat egin dut, eta bereziki pasareletan ibili naiz. Argazkigintza ere gustuko dut, baina ez naiz sobera eroso eta hain natural sentitzen. Pasarelan, ordea, gozaten dut, hagitz ongi sentitzen naiz eta izugarri gustatzen zait arropa erakustea, eta bereziki, emaztegaien jantziekin desfileatzea.

Desfilatzen, hemendik kanpo Bruselan Europako Parlamentuan, Madrilen, Errioxan, Agatha Ruiz de la Pradarekin... ibili naiz eta Euskal Herrian gehienbat Donostian. Batez ere Gipuzkoara joaten naiz, eta Iruñean gutti aritu naiz. Hori bai, betitik argi izan dut ez nuela kanpora joan nahi eta ez nintzela nire bizitza osoan horretara dedikatuko.



Iruñeko *Weeding Weekend* desfilean eta Balentziaga Museoan Custo Barcelonarekin.

Ez da lehenbizi zuretzat?

Niretzat hobby bat izan da, gustuko dudana egiteko aukera eman didana. Oraindik ere pixka bat segitzen dut eta deitzen didatenean, posible baldin badut parte hartzen dut. Berriki, Yolanda Torres diseinatzaile donostiarrek deitu dit emaztegaien bilduma aurkezteko desfile bat egingen duela erranez, eta parte hartu nahi dudana galdetuz. Baietz erran diot. Donostiako San Telmo Museoan egin zen desfilea, ordea, ezin izan nintzen joan, lanagatik. Modelo lanak denbora aunitz eskatzen du, eta egun bertze lan batean ari naiz lanaldi osoan eta ez dut denborarik. Gustatzen zait, baina ez da nire lehenbizi.

Nondik hartzen dituzu eskaintzak?

Oraindik agentzian segitzen dut eta desfile handiak direnean, modaren asteak edo erakunderen batek antolatutakoak direnean, agentziatik deitzen didate. Bertze kasu batzuetan, diseinatzailearen bilduma bat aurkezteko desfile bat baldin bada, adibidez, diseinatzaileak zuzenean gurekin harremanetan jartzen dira.

Nolakoa da modeloen mundua?

Ez da erraza, eta polemikoena gorputzaren gaia da. Niri agentzian aunitzetan erran izan didate pasarelara joateko, mehartu beharko nukeela. Argi dago, berez fisikoki meharra ez bazara, ez duzu Parisko Modaren Astearen parte hartuko. Orain dela bi urte, Gipuzkoa de Moda Donostiako moda jaialdian parte hartu nuen, eta harridura gelditu nintzen gazetxoaren solasak adituta. Nik bere denboran izan nuen desfileatzeko ilusioarekin sumatu nituen, baina 'mehartu beharko dut', 'agentziako arduradunak kilo batzuk galtzeko erran dit', 'gizen nago'... Halako komentario aunitz aditu nituen eta hori da okerrena. Urteekin egoera aldatzen ari da, baina oraindik topiko hori aldatzetik urrutitua gaude. Agentziek meharra egoteko eskatzen dute, baina zergatik? Diseinatzaileek

eta hornitzaileek ere hala nahi dutelako. Hagitz neurri ttikikoak diren arropetan sartzeko argalak nahi dituzte, baina ez da errealia.

Gai honekin gaizki pasatu duzu?

Ez hainbertze. Berez altua eta meharra naiz, eta ez dut dieta zorrotzik segitu behar izan. Mehartzeko erran izan didate, desfileen batean diseinatzaile batek bere arropetan ez ginel sartuko ere erran zigun... Lotsagarria da. Nik, ordea, beti argi izan dut nirean segituko nuela, mehartzen banintzen ongi eta egiten ez banintzen ere bai, ez zait inporta izan. Gaur egun, bertze lana tarteko guttiago ibiltzen naiz, baina badakit Donostiako *Fashion Week*erako edo bertze desfile batzuetarako deituz gero, arropak ez nituzkeela sartuko.

Modelo lanetik bizitzeko aukera izan bazenu, segitu izanen zenukeen?

Ez dakit... Modelo izateak aunitz nekatzen du, eta gaur egun modelo lanetik bizi direnak bere garaian bereak eta bi pasatutakoak dira. Nire kasuan, ez dakit hainbertze gauza sakrifikatzeko prest egonen nintzatekeen.

Zer sakrifikatu beharko zenuke?

Bertzeak bertze, denbora eta familia, beti bidaiatzen ibiltzen direlako. Desfileen ondotik nora joan nahi duzungaldetzen dizute, eta badakit Madrilera edoartzelona joanez gero, aukera gehiago izanen nituzkeela. Baina nik inguruan mugitu nahi nuela erran nien.

Modelo izanda bizi daiteke?

Kanpora joan eta lan aunitz lortzen baduzu, bai. Modeloek ez dute hilabeteen lansari finkorik hartzen, egindako lan bakoitzeko kobratzen dute eta eta horren zati bat agentziara doa. Ongi irabazten eta ekonomikoki konpentsatzen du, baina psikologikoki ez. Zaila da. Ez da sektore egonkorra, hagitz aldakorra eta motza da. Hagitz ezaguna bazara, 35 urtera arte horretatik bizitzeko aukera izanen duzu, aunitz jota 40 urtera arte.



Maria Cristina hotelean Isabel Zapardiez diseinatzailearen jantzien desfilean.

Motzean

Zeure burua hitz guttitan.

Pazientzia guttikoa.

Zein afizio dituzu?

Ikastea.
Kirol bat? Brasilen eskolako taldearekin areto futbolearen eta boleibolearen aritzen nintzen. Arantzara etorri nintzenean Beti Gazte futbortaldean ibili nintzen eta Australian boleibolearen. Orain gutti egiten dut, tarteka mendira, oinez...

Musika talde bat? Tina Turner eta Dolly Parton gusatzaten zaizkit baina denetarik aditzen dut. *Spotify*ko zerrendan 70eko musika dut, izugarri gustatzen zait.

Kanta bat? *Quando o segundo sol chegar.*

Bizitzeko toki bat? Australia edo Brasil.

Arantzako tokirik gustukoena? Nire etxea.

Liburu bat? *Mujeres que corren con los lobos.*

Jateko bat? Dilistak eta ilarrak.

Nora bidaiatuko zenuke? Indiarra.

Modelo bat? Cara Delevigne eta Adriana Lima.

Diseinatzaile bat? Acris, Agatha Ruiz de la Prada eta Custo Barcelona.

Arropa bat? Pijama.

Bertze ikasketak egin dituzu...

Bai, Arantzara etorri orduko ikasten hasi nintzen. Jakiteak ez du tokirik hartzen, eta ikastea hagitz aberasgarria dela uste dut. Batxilergoa bukatutakoan, Administrazioa eta Finantzak zikloa egin nuen, hegazkineko azafata izateko urtebeteko ikastaroa ere egin nuen. Saudi Arabiara joatekoa nintzen, eta konpainia batekin harat joateko dena hitzartua nuen, baina azken momentuan ingelese ikastera Australiara joatea erabaki nuen. Gauregun, Nazioarteko Merkataritza eta Marketing gradua egiten ari naiz, online, eta ingelese ikasten ere ari naiz. Frantsesarekin ere saiatu nintzen, baina hagitz gogorra egin zitzaidan. Denetarik pixka bat jakitea gustatzen zait. Ez naiz sekula gelditu.

Zure ustez zein ezaugarri beharko lituzke modelo on batek?

Altua eta meharra nahi dituzte, baina edertasuna norbere buruarekin ongi sentitzea dela ulertu beharko genuke. Norbere buruarekin ongi sentitzen den eta soinean duena erakutsiz gozatzen duen edozein izan liteke modelo.

Etokizunera begira zein amets dituzu modeloen munduan?

Orain dela sei urte galdetu izan bazenit, Parisen desfileatzea gustatuko litzaidakeela erran izanen nizukeen. Baina orain ez. Mundua barrenetik ezagutu dut, helduagoa naiz, eta ez da dirudiena. Dena hagitz azalekoa da, itxura kontua, 'hemen eta hor nagoela adieraztea', baina kameraren gibeletik halaxe daude gero...

Lehia handia dago?

Diseinatzaileen artean ez, nik ezagutzen dudan inguruan behintzat elkarri laguntzen ikusi ditut. Modeloen artean, ordea, lehia handia da, bereziki nesken artean, aunitz garelako eta lan gutti dagoelako. 'Nizu baino meharra gogoragoa baina, lehenagotik hartuko naute' sentimendua hagitz zabalduta da. Egoera duela hamar urte baino hobea da, baina konplikatu izaten segitzen du.



Aranoko Cueto-Ansa familia. Ezkerretik hasita Xabier, Adei, Eñaut eta Ainhoa.

Gaixotasun arraroak etxean ditugunean

Igande honetan izanen den Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren atarian, arrarotzat hartuak diren bi sindromeren lekukotasunak bildu ditu **Ttapi-Ttapa**: hertze laburren sindromea duen Berako Nahiaren eta Prader Willi sindromea duen Aranoko Eñauten gurasoen bizipenak

G. PIKABEA

Igande honetan, otsailak 28, Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna izanen da, urtero otsaileko hondarreko egunean izan ohi dena. Ezohikoak izateak eta herritar guttira eragiteak egiten ditu arraro eta **EURORDIS** Gaixotasun Arraroen Europako Elkartearen arabera, 6.000 bat gaixotasun arraro daude. Munduko biztanleriaren %3,5-%5,9 lagunek dute halako gaitzen bat: Europan 30 milioi lagunek eta munduan 300 milioi. %72k jatorri genetikoak dute –horietatik %70 haurtzaroan agertzen dira– eta gainerakoak infekzioen (bakterianoak eta biralak), alergenien eta ingurumen arazoien ondorio dira.

Denetarik gaixotasunak dira. Hedatuagoak diren fibrosi kistikoa edo hemofilia, edo 15.000 lagunetik batek duen Angelman

edo milioi bat herritarretik batek duen Opitzen trigonozefaliaren sindromeak, adibidez. Horietako bakoitzaren ondorioak ugariak izan daitezke, fisikoak nahiz psikikoak, sentimenei dagozkienak...

Arraroak izenez, ezezagunak aunitzentzat. Ez, ordea, Aranoko Ainhoa Ansa eta Xabier Cuetoarentzat eta Berako Ana Lanchas eta Juanjo Barcenillarentzat. Halabeharrez, gaia hurbiletik ezagutzeko tokatu zaie: Ansa eta Cuetoaren semeak Prader Willi sindromea du, 15.000 jaioberrietatik bati eragiten diena, eta Lanchas eta Barcenillaren alabak hertze laburren sindromea, estatu espainiarrean 400 laguni eragiten diena.

Prader Willi sindromea

Ansa eta Cuetoaren bederatzigarren semea da Eñaut, gura-

soen hitzetan, «pertsona guztiek bezala txanponaren bi aurpegiak» dituen: «batetik, oso kontrolatzailea da, uneoro jakin behar du bere inguruko guztiak zertan ari diren. Eta bestetik, oso ume alaia da eta dantza egitea eta musika gustuko ditu». Antzerkizalea ere bada eta «beti edozein jardueraregiteko edo probatzeko prest» egoten omen da. «Oso berritsua» dela ere gaineratu dute.

15. kromosomaren alterazioen ondorioz, Prader Willi sindromea du Eñautek. Horrek buruko hipotalamoari eragiten dio eta, «hipotalamoak erregulatzen dituen hainbat funtzio ez dira behar bezala betetzen». Bertzeak bertze, «sindrome hau dutenek ez dute asetasun sententziorik izaten eta beti gosetuta daude». Horrez gain, «hipotonia edo giharretako

ahultasuna daukate, eta txikitatik, beste umeek normaltasunez egiten dituzten ekintza fisikoak egiteko zailtasunak dituzte. Beraien metabolismoak ez ditu kaloriak behar bezala erretzen, eta kontutan hartuta, beti gosetuta daudela, gizentasun arazo larriak izateko aukera handiak dituzte». Horregatik, «jaiotzen direnetik, dieta zorrotza» jarraitu behar dute. «Umoredaketa handiak» dira bertze sintomak: «zoriontasunetik haserre bizira segundotzatean batean igaro daitezke eta batzuetan alderantziz ere bai». Eñauten kasuan, bertze ezauzgarrietako bat «minari dion tolerantzia handia» da: «Bere ezinen frustrazioa kudeatzeko zailtasunek bere buruari mina egitera eramaten dute. Hortaz, beti gainean egon behar dugu bere zauriak harrotu ez ditzen» Gurasoen arabera, «sindrome hau oso afekzio konplexua da bere osotasunean».

Hertze laburren sindromea

Nahiak laster beteko ditu bederatzigarren urte eta gurasoek «neska alaia, atsegina eta lagunartekoa dela, eta trikitixa jotzen duela» erranez aurkeztu dute. Hori bai, hertze laburren sindromearen sintomak sumatzen ditu: «hertzearen zati handi bat kendu behar izan zioten, eta 27 cm hertzerekin bakarrik gelditu zen, hasieran zuenaren %1arekin». Gaixotasun «larria» dela oroitarazi dute amak eta aitak, baita «prebalentzia baxukoa» dela ere, «estatu mailan 400 kasu daudelako».

Hertzeetako arazoak tarteko, «desnutrizio eta deshidratazio arazoak izan ditzake». Azaldu dutenez, «halako gaixotasuna duten aunitzek ezin dute aho bidez elikatu beraien sistema digestiboa ez delako gai behar dituen nutrienteak xurgatzeko eta horren faltan, gainean eraman behar izaten duten makina baten laguntzarekin, zunda nasogastrikoarekin edo zainetatik, gorputzak behar dituen nutrienteak barnatzen dituzte». Halaxe elikatu behar

izan du Nahiak urte aunitzez, «baina gaur egun, erabat aho bidez elikatzea lortu dugu».

«Une gogorrak»

Cueto-Ansaren etxean haurdunaldian jaso zituzten lehen seinaleak: «zerbait ez zihoala behar bezala esanez, azken asteetan kontrolak ugartu zizkiguten». Jaio zenean, «umea esku artean genuela, ahultasun horretan, arazoaren bat baze-goela nabaria zen». Une «gogorrak» izan omen ziren: «sema jaio berriaren poztasunak bere osasunaren inguruko kezkei bide eman zien. Medikuen arteko eztabaidak ez genituen ulertzen eta diagnostikoa jaso genuenean, bere orduko eta etorkizuneko bizi kalitateaz kezkatzen hasi ginen».

Hasiera «batere gozoa izan ez bazen ere», zorteko sentitzen dira, «zorionez, medikuen artean berehala sortu zelako eztabaida. Proba dezente egin zizkioten eta jaio eta 16. egunerako diagnostikoa eman ziguten. Familia askok ez dute suerte hori eta denbora asko pasatzen dute zer gertatzen den jakin gabe». Argi dute «funtsezkoa dela lehenbailehen jakitea. Beraian bizi kalitatea hobetzeko funtsezkoa da behar diren neurriak hasieratik hartzea».

«Sentimendu nahasketa handia»

Nahiak beranduago jaso zuen diagnostikoa, eta bidea «hagitz gogorra» izan zela kontatu dute gurasoek, «sentimendu nahasketa handia», gaineratu dute: «Pediarrari edozein momentutan zure alaba hil daitekeela aditzea hagitz gogorra da».

Hilabete eta erdi zituenean hasi zen sufrimendua: «bularra hartu ondotik botaka egin zuen eta zuri eta hoztua gelditu zen, ez zuen ezta negarrik ere egin. Larrialdietara joan ginen eta pediarrak zuzenean Donostia-ko Ospitalera bidali gintuen. ZIU-n ospitaleratu zuten».

Zalantza betetako hilabeteen hasiera izan zen: «hasieran ez zekiten zer gertatzen zitzaien, eta orduak pasatu ahala hain-



Berako Barcenilla-Lanchas familia: Juanjo, Ana, Oier eta Nahia.

bat aukera aztertu zituzten. Biharamunean ebakuntza egin eta bolbulua izan zuela ikusi zuten, hertzea bihurritua zegoela eta hagitz gaizki zegoela». Lau hilabete egin zituen ospitaleratu, eta tartean «egonkortzeko hainbat ebakuntza» egin zizkioten. «Hertzearen %1 arekin gelditu zen». Handik Madrilerara jo behar izan zuten, La Paz Ospitalera, «transplantearen aukera aztertzeko». Bertze hiru hilabete egin zituen Madrilan: «Han jakin genuen zer zuen. Zeri aurre egin behar genion jakiteak neurri batean lasaitu egin gintuen».

«Pareta joz ikasiz»

Diagnostikoa jakin dutenetik egin duten bidea «goiti-behe-

«BIDEA HAGITZ GOGORRA IZAN DA»

A. LANCHAS ETA J. BARCENILLA

ti handikoa» izan dela onartu du Berako bikoteak, «paretaren kontra joz ikasi dugu. Ospitaleratu behar izan duten aldiro aunitz sufritu dugu, baina poliki-poliki, okerrago jarri aitzinetik, bere egoeraren seinale-rik tikienei erreparatuz ikasten ari gara. Batzuetan lortzen dugu eta ez du ospitaleratu behar izaten, baina bertzeetan ez».

Egunerokoa, berriz, «ongi dagoenean bere adineko bertze haur baten gisakoa dela» kontatu dute. «Lehenagotik nekatzen da eta egunero hertzeetako bakteriak kontrolatzeko antibiotikoak eta bertzelako osagarriak hartzen ditu». Horrekin batera, «zer eta zenbat jaten duen kontrolatu behar dugu, kaka eta orokorrean bere

«ERABAT MOLDATU BEHAR IZAN DITUGU BIZI OHITURAK»

A. ANSA ETA X. CUETO

egoera zaindu behar dugu». Ongi ez dagoenean, «etxean gelditzen da, deskantsatzeko eta botikekin errekeratatzeko».

Kontrolaren garrantzia

Ansak eta Cuetok, berriz, «bizi ohiturakerabat moldatu» behar izan dituzte. «Batez ere, elikaduran eta dietan du eragina: etengabe kontrolatu behar izaten dugu gure ingurukoek eta ezezagunek ematen dioten janaria, orduz kanpo ezin duelako deusjan. Eskerrak familiarian ohitu direla eta inguruko jendeak ere orokorrean ulertu duela gure kontrolaren eta zorrotasunaren zergatia». Hala ere, aitortu dutenez, «batzuetan kosta egiten zaigu jendea-ri ulertaraztea ez dela gure kapritxo bat...».

Gainerakoan, egunerokoa «errutinazko ohiturekin» antolatua dute Eñauten etxean, «ustekabeko aldaketak ez baitituzte ongi hartzen». Eskolara «gustura» joaten dela diote aitak eta amak, eta «eskolaz kanpoko jardura batzuk ere baditu». Baina «errutina horietatik kanpoko edozer sortzen bada, kudeaketa arazoak izan ditzake eta asko haserretu». Hala ere, hori lantzen ari direla eta «jarrerasaia mantentzen saiatzen» dela onartu dute.

«Gh hormonaren tratamendua» hartzen du aranoarrak, «hazten eta indartzen laguntzen dio». Orain arte logopedarekin ere ibili da eta bost hilabete zituenetik igerilekuan, «errehabilitazioa egiteko aurrena eta ariketa fisikoa egiteko gero. Aurtengoa da igerilekura joan gabe gelditu garen aurreneko urtea». Horrez gain, «mediku kontsulta asko» izaten ditu.

Bilakaera ona

Poztekoa da Eñautek eta Nahiak «bilakaera ona» dutela jakitea. Berakoen hitzetan, «normale- na bide parenteraleko makina batekin elikatzea edo transplantea egitea izan litzateke, baina medikuak harrিতa dau- de gaur egun Nahiaren egoera zein den ikusita». →



Nahiaren familiak Somos Nupa elkartearen bilatu du babesu. Hain zuzen, berriki 15 urte bete ditu elkarteak (www.somosnupa.org).

Aranoarrek ere semeak «bilakaera ona daramala» adierazi dute. «Sindrome honen sintomen abanikoa oso zabala da, eta bakoitzarengan ezaugarriak ez dira intentsitate berekoak. Baina gure kasuan ariketa fisikoak, zailtasunekin bada ere, ia normaltasunez egin ditzake eta errutina hauek beretzat funtsezkoak dira. Eskolan aurrera egiten du laguntzarekin eta hitz egiterakoan nahiko ongi ahoskatzen du». Hala ere, «etengabeko jarraipenaren beharra» azpimarratu dute, «arazo asko izan ditzakeelako».

Laguntzak

Bidean jaso duten laguntzaz ere aritu dira. Ansa eta Cuetok, adibidez, ikastetxeari esker

lortutako laguntza aipatu dute, «berarentzat hori ezinbestekoa da ikasketekin ahalik eta modu normalenean jarraitzeko». Eta «eskola txiki batean egoteak lagundu» diela diote. Familiarentzat ere esker oneko hitzak dituzte, «gure familiek asko laguntzen digute denean» eta «janariarekin duen arazoan, familiaren eta inguruko inplikazioaren berebiziko garrantzia» nabarmendu dute. Gisa berean, «Donostiako Ama-Hau-

«SISTEMA EZ DAGO GAITZ ARRAROAK ARTATZEKO PREST»

A. LANCHAS ETA J. BARCENILLA

ren eraikineko eta Gurutze-tako Ospitaleko profesional asko lagundu» dietela gaineratu dute.

Nahiaren gurasoak ere «suer-te handikoak» sentitzen dira, «izan ditugun profesional ia guztiek lagundu digutelako eta bide onetik bideratu gaituztelako». Horren harira, «Lesaka eta Berako osasun zentroak, Bidasoa Ospitalea, Donostiako ospitaleko pediatriako ZIUa eta Madrilgo La Paz Ospitale-

«ETENGABEKO JARRAIPENA BEHAR DUTE»

A. ANSA ETA X. CUETO

ko gastroenterologiako lantaldea» izan dituzte gogoan.

Hala ere, bi familiak bat dutoz oraindik zer hobetua badela erraterakoan. Beratarren hitzetan, «azken urteotan hainbat gaixotasun ezagutarazi dira eta laguntzak hobetu dituzte, baina oraindik egiteko aunitz dago eta sistema ez dago gaixotasun arraro gehienak artatzeko prestatua». Baliabideak «mugatuak» direlakoan daude, eta «horiek eskuratzeko borrokatzera behartzen gaituzte».

Bada zer hobetu

Gehiago ere bai. «Laguntzen eta baliabideen inguruan ezjakintasun handia» sumatzen dute, «bai profesionalen bai administrazioko langileen artean». Hala, «pazienteak erreferentziako zentro batean zentralizatzeko baliabideen» beharraz aritu dira: «Profesionalek eskura dituzten baliabideak zein diren jakin behar dute ahalik eta agudoen pazienteak zentro horietara bidera ditzaten. Eta pazienteek baliabide horiek eskura behar dituzte».

Nahiaren kasuan, «batetik, eskolan ordu batzuek laguntzeko pertsona bat du, eta bertetik, Osasunbideak Madrilera kontsultetara joan behar dugunerako edo han ospitale-ratuak egon behar dugunerako dirulaguntzak ematen ditu. Gizarte Segurantzak Nahia zaintzeko gurasoetako batek %99ko lanaldi murriztua izatea baimentzen du». Baina ez dira nahikoak Lanchasen eta Barcenillaren hitzetan: «Badira guk ordaindu behar izaten ditugun osagarriak. Joan-eterriarako dirulaguntzak ez dira gastuak osotasunean ordaintzeko nahikoak. Eta etxea bere egoerara egokitu behar izan genuen».

Bide beretik, Ansa eta Cuetok «administrazioetatik laguntzaren bat jaso izana» onartu dute, eta «osasun sistema publikorik gabe ezin izanen genituzkeen Eñautek behar dituen tratamendu eta azterketa guztiak ordaindu». Hala ere, beraien

irudiko, «beti dago zer hobetu». Horren adibide, «familiarrentzako arreta falta» aipatu du: «Isilik bagaude, deus falta ez dugunaren seinale da. Ez dago inolako babesik, ez delako ohikoa den zerbait. Zerbait behar badugu, posizio zailean jarrita lortu behar dugu, bidea urratuz beti, inork ez dizulako deus eskaintzen. Egoera berean gaudenok elkartzea beste erremediorik ez dago askotan».

Ikerketarako baliabide gehiago

Aunitzetan salatu izan dute gaixotasun arraroak ikertzeko ez dela nahikoa bideratzen eta iritzi berekoak dira Berako eta Aranoko bikoteak: «Inbertsioak etekina izatera mugatzen dira eta kasu gutti dauden gaixotasunak itxaron-zerrendan gelditzen dira», erran dute beratarrek. «BPGren % jakin bat ikerketara bideratu» beharko litzatekeela iruditzen zaie. Beraien kasuan, Somos Nupa elkartean bilatu dute babesa eta «urte luzez dirua bildu ondotik, elkartea bere aldetik ikertzen hasi dela» azaldu dute.

Uste berekoak dira aranoarrak: «arraroen artean katalogatzeak ezezaguna bilakatzen du, eta ez da bidezkoa, ez da nahikoa bideratzen ikerketara».

Sentsibilitate gehiago eske

Egindako bideari so, gaixotasun arraroa duela jakin berri duten gurasoengan ere arreta jarri dute. Lanchasek eta Barcenillak «ahalik eta informazio gehien biltzeko» deia luzatu dute, «gertatzen ari denaz eta egoerak hobera egiteko egin daitezkeen ahalik eta informazio gehien biltzeko».

Ansak eta Cuetok «prozesu eta sentimendu guztiei bidea irekia uzteko» gomendatu dute, «inork ez baitzaitu prestatzen semeak edo alabak arazoren bat izan dezakeela ulertzeko». Eta «pazientzia, maitasun asko» eta «pazientzia gehiago» behar dela errepikatu dute barre artean: «batzuetan zaila bada ere, benetan pentsatzen dugu sindrome honek pertsona ho-



Eñaut aranoarra gustura joaten da eskolara.

beak egiten gaituela». Etxeko seme txikiena ere gogoan izan dute eta «anai-arrebek duten sentsibilitatea askok nahiko luketela» diote. «Ez da erraza galdera eta galdera artean egunerokoan hain ausartak izaten asmatzea eta hauen beharrak ere ez ditugu ahaztu behar».

«Teorian naturaltasunez bizi beharko litzatekeen zerbait dela» jakin arren, «semea foku guztien erdigunean jartzeak sekulako errespetua ematen

duela» aitortu dute Ansak eta Cuetok, «bereziki niri», dio Ansak. «Kontatzen hastea bide luzea eta zaila» izan da, baina «gaia ezagutarazteko lan handia egiteko dagoela» iritzita, pausoa ematea erabaki dute. Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egungaren bezperako egunak aukeratu dituzte gaiaz solastatzeko, «Eñaut eta berak duen sindromea ingurukoek hobeki ulertzea» nahi dutelako.

«IKERKETARA EZ DA BEHAR ADINA BIDERATZEN»

A. LANCHAS ETA J. BARCENILLA

«ARRAROA DA ULERTZEN SAIATZEN GAREN ARTE»

A. ANSA ETA X. CUETO

Bi familiei tokatu zaie ezezaguna ezagutzea, «pareta joz aurrera egitea» edota «ausartak izaten asmatzea». Argi baitute «bizitza tokatzen ez zaizun arte, ez dugula ideiarik ere zer izaten ahal den, ez dugula erabat ulertzen». Hortik haratago, aranoarrek «horrelako afekzioak dituztenekin eta haien familien errealitatearekin jendarteak irekiagoa eta ulerkorragoa izan beharko lukeela» uste dute. «Teorian badakigu, baina praktikara salto egin dezagun, kosta ala kosta, gure seme-alaben etorkizuna jendarte sentsibleago eta ulerkorrago batek arindu baitezake». Areago: «gauza bat arraroa da begien aurrean ikusten eta ulertzen saiatzen garen arte».

Zaindu maite duzun hori...



Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Inguruko erdaren eraginez eta euskalkien arteko ohituren ondorioz, ERE lokailua arazo-bide izaten da aunitzetan. Hona hemen zenbait ohar:

- ***Ere joan gaitezke mendira > Mendira ere joan gaitezke**
- **Guk goian afalduko dugu. Eta zuek?**
-***Goian ere > Guk ere bai / Guk ere goian).**
- **Ogia nahi al duzu?**
-***Bai, eta txokolatea ere bai nahi dut. > Bai, eta txokolatea ere bai.**
- *Mendian ibiliko da baita ere > Mendian ere ibiliko da.**
- *Ez gaitu harrapatuko gu ezta (ere) / gu (ere) ezta > Ez gaitu harrapatuko gu ere.**

ERERen erabilera laburbiltzen duen Euskaltzaindiaren eskemak honela dio:

- ...*hori baita ere > ... baita hori ere** -**...*hori ere baita > ... baita hori ere**
- ...*hori ezta ere > ... ezta hori ere** -**...*hori ere ezta > ... ezta hori ere**
- ...* ere hori > ... hori ere** -**...* ere bai hori > ... hori ere bai**
- ...* eta ere hori > ... eta hori ere** -**...* ere ez hori > ... hori ere ez**

Eske, eske... Kontu eske?

Hitzetik hortzera erabiltzen ditugu *ake, si, asike, jake, eske, aunke, desde luego, porke...* Gaztelaniatik hartutako esapide horiek euskaldunon artean zabaldu dira. Baina saia gaitzen saihesten!

- *Ake bai asmatu > Baietz asmatu!**
- *Eske gurekin gustura dabiltza > Gurekin gustura dabiltza eta.**
- *Ez dakizu, asike isildu! > Ez dakizu, eta isildu! / Ez dakizu; beraz, isildu!**
- *Jartzeko? Si jarrita nago! > Jartzeko? Jarrita nago eta!**

Konparazio batera, *si* hitza, euskaraz behintzat, musika-nota bertzerik ez da. Euskaraz ez duzu inongo hiztegitan aurkituko. Edo eske esapidea erabiltzeko joera ere gero eta gehiago zabaltzen ari da. Euskarak, ordea, baditu esapide hori adierazteko aski baliabide inguruko hizkuntzetara jo gabe: *eta, izan ere, bait-...*

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eu

744 48 43 61

Bitxikeriak

Egun seinalatua

eguna

Basoak sentitzea sustatuko du turismo elkarteak

Joan den urte «zaila» defizitrik gabe itxi ondotik, aurten 50.870 euroko aurrekontua du Baztan Bidasoa Turismoak

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak urteko batzar orokorra egin du. Bertan, defizitrik gabe itxi duten 2020ko balantzea aurkeztu eta 2021erako egitasmoak eta 50.870 euroko aurrekontua onartu dute.

Patxiku Irisarri presidentearen hitzetan, «2020a urte zaila izan da eta 2021a ez da xamurra izanen». Nolanahi ere, «auzolanean lan egitea izan da eta izanen da gako» gaineratu du. Konfinamendu garaian, «borrokan segitu du elkarteak sare sozialen bidez, kideen egoera zein zen azalduz eta egoerara moldatuz, kanporako komunikazioarekin jarraituz». Aldi berean, «barne komunikazioa indartu egin zuten elkarteak, kideei uanean uneko informazioa helaraziz, aholkularitza zerbitzua emanaz zein kontingentzia planak erraztuz». Lehendakariak adierazi duenez «elkarlanak Baztan-Bidasoa Turismo elkarte indartu du».

Konfinamenduak eta Covid-19akeraginda 2020ko bi proiektu garrantzitsu bertan behera

utzi behar izan dituzte elkarte kideek: bisita gidatuen egitasmoa eta Ehiza Jardunaldi Gastronómicoak. Lehendabizikoa prest zegoen San Joseko zubian abiatzeko, baina astebete lehenago konfinamendua agindu zuten. Ehiza Jardunaldi Gastronómicoak urriaren 16an abiatu ziren eta, astebete geroago, ostalaritzaren itxiera agindu zuten Nafarroako Gobernuak.

Basoa sentitu egitasmoa

2021ean Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak garatuko duen egitasmo nagusiaren izena *Basoa sentitu* da. Proiektu honen helburua bertako basoa sentitzea eta ezagutzea da. Arduradunek oharrea aditzaera eman dutenez «Japoniako *Shinryu Yoku* (baso bainuak) praktika oinarri hartuta, basoan murgiltzeko hainbat puntu proposatuko dizkiote bisitariari, bakarrik, familiarekin, zein lagunekin basora joateko». Izan ere, «basoan murgiltzearekin batera zentzumenak piztea da helburua, basoa sentitzea, erlaxatzea eta des-



Basoa sentitu, erlaxatu eta deskonektatzeko egitasmoa prestatu dute. UTZITAKOIA

konektatzea». Eta horretaz aparte, basoan murgiltzeko esperientzia ipuin mitologiko batekin osatzeko proposatuko diote bisitariari, «toki bakoitzean naturak eta mitologiak bat egiten duen ipuina irakurriz». Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, «proiektu berriaz gain, 2021ean ez dute hutsik eginen dagoeneko errotuta dauden bertze hainbat egitasmok: bisita gidatuak, Ehiza Jardunaldi Gastronómicoak, edo *Zer egin Baztan-Bidasoan* argitalpena». 2021eko egitasmoak aitzinera eraman ahal izateko, Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak 50.870 euroko aurrekontua onartu du.

Kideen lanari aitortza

Patxiku Irisarrik «garai zailetan elkartuta lan egiteagatik kide guztien lana aitortu eta eskertu» du. Presidentearen hitze-

tan «horixe da gakoa eta bide horretan segitzera animatu» ditu. Zentzu horretan, «elkartearen atea zabalik» daudela eta une honetan «kideak bereganatzeko kanpaina abian» dagoela gogorarazi du. Hartara, turismoarekin loturiko establezimendu guztiei kide egiteko gonbidapena luzatu die. Interesa izanez gero, 948 59 23 23 telefonora deitu edo mezua info@baztan-bidasoa.com helbidera bidali daiteke.

Bilera akitu aitzinetik, Belen Urrutia elkarteko idazkariak kalitatearen gaia «lantzen segitzeko» eta teknologia berrietan «gibelatuak ez gelditzeko» beharra azpimarratu ditu. Horrela, «Baztan-Bidasoko eskualdera datozen bisitarien arretaren kalitatea hobetzeko eraldaketa digitalerantz urratsak egitera» animatu ditu elkarteko kideak.

Babes zibilari eta larrialdiei aurre egiteko laguntza hitzarmena berritu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta tokiko suhiltzaile boluntarioen elkarteak dituzte zazpi udalek, tartean Bera, Goizueta, Leitza eta Lesakakoek, lankidetzaz hitzarmena berritu dute babes zibilaren eta larrialdien arretaren arloan, batez ere suteen

prebentzio eta itzalketaren eta salbamenduaren arloan.

Hitzarmenaren arabera, Gobernuak 203.000 euroko laguntza ekonomikoa emanen die udal horietako suhiltzaile boluntarioei, baita laguntza teknikoa eta prestakuntza espezifikoa ere.



Hitzarmena berritzeko ekitaldia otsailaren 10ean egin zuten.

OCR kameraren bidez kontrolatuko dira aparkalekuak

Azken hilabeteetan aparkalekuak ordenatzeko prozesuan daude eta hainbat arau berri ezarri dituzte Beran eta Lesakan

TTIPI-TTAPA

Aitor Elexpuru Berako alkateak eta Ladis Satrustegi Lesakako alkateak sinatutako informazio ohar batek dioenez, «azken hilabeteotan ezarri diren arauok guztion beharrak asetzeko pentsatuak izan dira eta garrantzitsua da horiek, bertze guztiak bezala, errespetatzea». Bide horretan, Beran plaza berdeak, soilik herritarrentzat, eta denbora mugatuko plaza urdin-gorriak, guztiontzat, markatu dituzte. Lesakan, berriz, zamalanetarako plazak edota komertzioen inguruan

erosketak egiteko plaza gorriak markatu dituzte, hainbat aparkaleku berriz pintatzearekin batera.

Gidari batzuen utzikeria

«Herritar gehienok errespetatzen ditugu arau horiek, eta, egia erran, gutti batzuk dira behar ez den tokietan aparkatzen dutenak: espaloietan, zebrabideetan, ezgaituentzako plazetan, marra horia dagoen edo bereziki debekatua dagoen tokietan... Argi erran behar da gutti horien jarrerak gehiengoan eskubideak zan-

patzen dituztela», dio alkateen oharrak.

OCR kameraren funtzioa

Horregatik, bi udalek neurriak hartu dituzte arauak errespetatzen direla kontrolatzeko, eta horiek herritar guztien jakinarenean gainean paratu nahi dituzte. Kontrol prozesua errazteko sistema berria paratu dute martxan: OCR (matrikulak irakurtzeko sistema) kamerak dituen udal ibilgailua.

Sistema horren bitartez, udal ibilgailua herrian barna joan da, gaizki aparkatuak diren autoen argazkiak ateratzen, gelditu gabe, isunaren prozesuari hasiera emanez. Sistema horrek, gainera, bi herrietan ezarritako ordutegi mugatutako plazetan denbora gainditu duten autoak identifikatuko ditu, edo, Berako kasuan, baldintzak bete gabe plaza berdeetan daudenak detektatuko ditu ere. Lesakan, adibidez, zamalanetarako plazak

gaizki erabiltzen dituztenak identifikatzeko balio izanen du. Araua hausten duenak isunaren abisua jasoko du etxean autoaren matrikula agertzen duen argazkiarekin, arau-haustearen proba gisa.

Isunik ez izatea helburu

Berako eta Lesakako alkatearen idatziaren arabera, «honen helburua ez da isun gehiago jartzea, udaletarako balizko diru-iturri gisa, baizik eta guztiok arauak errespetatzea, gehienok egiten dugun bezala, denon mesederako. Helburua, azken finean, isunak ez jartzea da, arauak errespetatzen direnaren seinalea izanen baitzen hori. Badakigu, zoritxarrez, kontrol zorrotza ez bada egiten beti egonen dela arau-hausleren bat, eta hori geldiarazi nahi dugu».

Bi herrietako alkateak seguru daude «arau horiek errespetatzea denon mesederako izanen dela».

'Ibaiko "bertze" arrainak' erakusketa dagoeneko ikusgai dago Garbigunean

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Mankomunitateak, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak eta Izarbeibarko Mankomunitatearen artean *Ibaiko "bertze" arrainak* erakusketa sortu dute. Erakusketaren helburua herritarren artean gure erreketan eta itsa-

soetan bukatzen duten hondakinek sortzen dituzten arazoengatik inguruan hausnarketa bultzatzea da. Erakusketa Bortzirietako Mankomunitateak Alkaiaga industrialdean duen Garbigunean dago ikusgai astelehenetik ortzirralera 12:00etatik 15:00etara.



Erakusketa dagoeneko ikusgai dago Alkaiagako Garbigunean.

Hemen erabili
DenokBat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Alberto RETEGI
abokatu
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Astelehenetik ortzirralera:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
LABE ZAR
948 631 076 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Garraioa eta hondakinak arazoan iturburu nagusia

Ilbeltzean Nafarroako hainbat udalek Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna sinatu zuten, tartean Berako Udalak

IZASKUN REKARTE

Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Itunaren helburua 2005eko negutegi efektuko gasen isurien inbentarioa egin eta isuriak %40 murriztea da. Lau sektoreen isuriak azertu dira: udal sektoreko eraikin, azpiegitura, argiteria eta ibilgailuena; herriko etxebizitzena, garraioarena eta hondakinena.

Egindako azterketaren arabera, herrian egiten den energiakontsumoa modu honetan banatzen da: %82 garraioan, %17 bizitegiak eta %1 udal

eraikinek. Elektrizitatearen kontsumoa %84 bizitegiek, %10 udal eraikinek eta %6 argiteria publikoak gastatzen du. Gas naturalaren kontsumoa %95 bizitegiek eta %5 udal eraikinek kontsumitzen dute. Petrolioaren gas likidotuen kontsumoaren %100 bizitegiek dute. Gasolioa, berriz, %86 bizitegiek eta %14 udal eraikinek kontsumitzen dute. Garraioaren erregaiari dagokionez, %86k diesela erabiltzen du eta %14k gasolina. Udal ibilgailuek kopuru berean erabiltzen dituzte bi erregaiak.

CO² emisioak

CO² emisio orokorreki dagokionez, emisio guztien %83 garraioak sortzen du, %13 bizitegiek, %3 hondakinak eta %1 udal eraikinek. Iturriak erreparatuz, %40 elektrizitateak sortzen du, %37 gas naturalak, %17 gasolioak eta %6 PGLak. Udal eraikinen emisioen %42 gasolioa da, %40 gas naturala eta %18 elektrizitatea.

Nafarroako bana bertzeokoren azpitik

Herriko bizitegien energia kontsumoa (3,55) Nafarroakoaren (5,64) azpitik kokatzen da, baina, ez da efizientzia maila hoberenera ailegatzen (2,25). Udal eraikinen kontsumoa (0,29), berriz ere, Nafarroako bana bertzeokoren azpitik dago (0,30). Efizientzia maila hoberena, 0,10 da. Argiteria publikoaren kontsumoa, udalerrian hagitz baxua da (0,10) Nafarroakoarekin alderatuz (0,24) baina, berriz ere, ez da

efizientzia mailara ailegatzen (0,01). Garraioaren kontsumoan herriko datuek (17,46) Nafarroakoa (17,15) gainditzen dute, eta efizientzia zifratik urruti kokatzen da (6,40).

CO² emisioei dagokionez, herriko bizitegien emisioak (0,74) Nafarroakoaren (1,10) azpitik kokatzen dira, efizientetik urruti (0,47). Herriko eta Nafarroako udal eraikinen emisioen kopurua berdina da (0,07), eta efizienteak izateko 0,02 izan beharko litzateke. Argiteria publikoaren herriko emisioak 0,02 dira, Nafarroakoa 0,06 da eta efizientzia maila ailegatzeko ez litzateke emisiorik sortu beharko. Garraioan herriko emisioak (4,62) Nafarroakoa (4,54) gainditzen du eta efizientziatik urruti dago (1,69). Azkenik, hondakinaren CO² emisioak azertu dituzte eta Berakoek (0,15) efizientziaren ia bikoitza baita (0,08). Nafarroako bana bertzeokoa 0,10 da.

'Txomin eta Txistuman deskontzertuan' larunbatean Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

Ricardo Baroja eskolako guraso elkarteak, udalaren eta kultur batzordearen laguntzarekin, otsailaren 27an, larunbatean, kontzertu didaktikoa antolatu du. Hitzordua 18:30ean kultur etxean adostu dute.

Ekitaldia familia guztiarentzako izanen da eta bertaratuek Euskal Herriko eta munduko instrumentu tradizionalei buruzko kontzertu xelebraz gozatzeko aukera izanen dute. Sarrerak aitzinetik Agara prentsan hiru euroren truke eskura daitezke.



Kontzertu xelebraz gozatu dute larunbatean bertaratuek.

Aurre izen-emate epea: martxoaren 1etik 15era.

✉ info@jesusenbihotza.com
☎ 948 63 00 09

PARTE HARTZETIK PARTE IZATERA

Haur eskola

Etxebizitzari buruzko ikerketaren berri emanen dute

Martxoaren 1en Harriondoan hizlari izanen dira alkatea, Nafarroako Gobernuko ordezkaria eta teknikaria

AITOR AROTZENA

Joan den abendutik, herriko etxebizitzaren egoera aztertzeko ikerketa egiten ari da udala, gaur egun etxebizitzaren egoera zertan den eta herritarren beharrak zein diren aztertzeko. Ikerketaren baitan bi atal nagusi landu dituzte, alde batetik herriko etxebizitzaren erregistroa, eta bertze aldetik herritarren beharren analisia. Beharrak ikertzeko inkesta bat zabaldu zuten urtarilean, eta herritarren 200 erantzun jaso zituzten. Hortaz gain, bertzelako entitate eta adituekin ere aztertu dituzte beharrak, eta emaitzak jaso eta antolatzen ari dira orain, ondorioak atera ahal izateko.

Solasaldia martxoaren 1ean

Emaitzen zein ondorio nagusi batzuen berri emateko martxoaren 1ean, astelehenean 18:00etan Harriondoa Kultur Etxeko Txokobiko aretoan solasaldia antolatu dute. Beti bezala, segurtasun neurriak betez eta edukiera mugatua kontuan hartuko dira. Hitzaldi honen helburua Lesakako

etxebizitzaren egoera zein den azaldu eta ikerketaren lehen emaitza eta ondorioen berri ematea izanen da. Bertan izanen dira Ladis Satrustegi alkatea, Eneko Larrarte Nafarroako Gobernuko etxebizitza saileko zuzendaria eta Garazi Conde ikerketa garatzen ari den teknikaria.

Ladis Satrustegik irekiko du hitzaldia, ikerketa hasteko arrazoiak eta udalaren ikuspegia emanez. Ondotik Eneko Larrarteren txanda izanen da, eta Nafarroako egoera orokorraren berri emanen du, egun martxan dauden proiektu eta politikari buruz solastatzearekin batera. Azkenik, Garazi Condek orain arte ikerketaren emaitzen eta ateratzen ari den ondorioen berri emanen du. Bukatzeko herritarren parte hartzerako tarte bat ere irekiko da, galdera-erantzunetarako.

200 HERRITARREN ERANTZUNAK JASO DITUZTE INKESTAN

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



Bidasoaldean izandako tortura kasuen aitortza egin zuten . AITOR AROTZENA

Torturaren biktimak gogoan izan dituzte 'Egia, ur azalera' ekitaldi hunkigarrian

A. AROTZENA

Joxe Arregi Espainiako Poliziak egindako torturek eragindako zaurien ondorioz Carabanchelgo kartzelan hil zirenetik 40 urte bete ziren otsailaren 13an eta torturaren biktimak gogoan izan zituzten egun berean Lesakan.

80ko hamarkadan Mikel Zabalzaren hilotza agertu zen Bidasoa ibaiako uretan, Endarlatsan. Duela 13 urte, berri, Igor Portu eta Mattin Sarasolaren atxiloketa eta torturek izan zuten oihartzun handia. Baina bi kasu nabarmen hauez gain, zabalagoa eta isilagoa izan da urte luzez torturak Bidasoaren inguruan utzitako arrastoa.

Torturaren Aurkako Eguna zela eta, asteburu horretan, bi ekitaldi egin zituzten Lesakan, eskualdeko errealitatea azalerratu asmoz, *Egia ur azalera* gogiburupean.

Aitortzaren bila solasaldia

Ortziralean, Harriondoa Kultur Etxean solasaldia izan zen, *Aitortzaren bila* izenburupean. Bertan, alde batetik, Igor Portu eta Mattin Sarasolaren kasuak, eta bertzetik, emakume torturatuen testigantza izan zituzten mintzagai Amaia Izko abokatuak eta Izaskun Rekarre antropologoak.


Larunbatean, eguerdian frontoiaren gibealeko aparkalekuan, Unai Ruiz margolariak

eginiko muralaren oinetan, oroitzapen ekitaldia egin zen. Bertan, Mikel Zabalza, eta Mattin Sarasola eta Igor Porturen kasuak lotuta, Bidasoa ibaiak zeharkatzen duen bailara honetako torturatu guztiak gogoan izan zituzten. Txalaparta eta musika doinuekin batera, Zabalza, Portu eta Sarasolaren senideek beraien testigantzak plazaratu zituzten. Unai Ruiz margolariak *Egia, ur azalera* margolanaren nondik norakoak azaldu zituen eta *Errekak ez duelako dena eramaten, ez dugulako ahazten, egia atera dezagun ur azalera* zioen oroigarri bat ere azaldu zuten.

146 torturatu Bidasoaldean

Bertan, «Mikel Zabaltza 1985ean atxilotua, Bidasoan agertu zen gorpua ur geldien isiltasunean; Igor Portu eta Mattin Sarasola, 2008an atxilotuak Aramaioko ur bizen bazterrean torturatuak» esaldiak irakur daitezke, baita Baztan-Bidasoaldean torturak salatu dituztenen kopurulatzak ere: «Baztanen 22, Malerrekan 10, Bortzirietan 41 eta Behe Bidasoan 73».

Ekitaldi hunkigarria bukatzeko, Aurrekua dantzatzeaz gain, eskualdean tortura sufritu duten horietako batzuk lore-eskaintza egin zuten Mikel Zabalzaren argazkiaren ondoan.



Zumarra inguruan landatu dituzte gaztainondo esperimentalak. UTZITAKOIA

1.600 gaztainondo landatu dituzte Zumarra aldean

Horietatik 600 Galizian aukeratutako sei klonetako landareak dira eta bertzeak Aritzakungo hazitik sortutakoak

A. AROTZENA

Udalak eta Nafarroako Gobernuak adostutako lan akordioaren ondotik, eta gaztainondo landare klonalak zura ekoizteko duen gaitasuna aztertzeke, landaketa esperimental bat egiten ari da mendi komunalean, Zumarra inguruan, Piperla aldera.

Bertako gaztainondoak XIX. mendetik jasaten dituen eritasunei aurre egiteko, Galizia-ko CIF Lourizanek 32 klon erregistratu zituen. Beraien artean zura ekoizteko ezaguri onenak dituzten sei klon aukeratu dituzte Nafarroako

Gobernuko teknikariek (klon bakoitzeko 100 landare), zenbait eskualdetan entsegu partzelak ezartzeko. 600 klon landare hauekin batera, Baztango Aritzakuneren dauden gaztainondoaren hazitik sortutako 1.000 landare ere sartuko dira. Bigarren entsegua da Lesakakoa, Iturenen jarri zen lehena iaz, eta datozen urteetan bertze herri batzuetan entsegu gehiago egiteko asmoa dute.

Gaztainaz gain, negu honetan 36 hektareatan landaketak egiteko asmoa du udalak (*ikus ttipi-ttapa 773 zk.*).



UTZITAKOIA

Loreontziak irauliak Eltzeta karrikan

Han-hemenka ikusitako zakuzahar, mairu, mozorro edo fraindar bakanak ez ziren inauterietako seinale bakarrak izan. Zoritxarrez, batzuk, besta txikizioarekin lotzen segitzen dute. Asteburu horretan izandako zenbait portaera salatu ditu udalak ohar bidez. Argazkian, loreontzi irauliak Eltzetan.



UTZITAKOIA

Udal irekia eta parte-hartzailegoa

Udal ireki eta parte-hartzailego bat lortzeko asmoz, otsailaren 9an Nafarroako Gobernuko Gobernu Irekiaren eta Herritarren Parte Hartzearen zuzendari nagusiarekin bildu ziren udal ordezkariak. Bilkura honetan informazioa elkarbanatu eta esku artean dituzten proiektuen inguruan hausnartu zuten.



Magala

LESAKAKO UDAL HAUR ESKOLA

2021eko irailean hasiera emanen diogu ikasturte berriari




BISITAK

*Magala haur eskola bisitatu nahi baduzu, bidali mezu bat magalalesaka@gmail.com helbidera zuen telefono zenbakia, haurren izena eta adina zehaztuz, eta zuekin kontaktuan jarriko gara hitzordua zehazteko.

AURREMATRIKULAZIOA

Martxoaren 1etik 15era, Lesakako udalan

*2021eko maiatzaren 12ra arte jaiotako behar diren haurrek egin dezakete aurrematrikulazioa.

Dozein zalantza izanez gero, jarri gurekin harremanetan magalalesaka@gmail.com-en edo **688 77 45 30** telefono zenbakian.

ETXALAR

Emakumeen eguna umorez ospatuko dute

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna da eta hau ospatzeko aitzineko larunbatean ikuskizuna dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Martxoaren 6an, larunbatean, ospatuko da Emakumeen Nazioarteko Eguna herrian. 11:30ean frontoian elkartu eta musikaz giroturik, distantziak mantenduz, kultur etxera hurbilduko dira 12:00etarako, Pantxika Lamurren antzerkia ikusteko. Edukiera arauak bete ahal izateko, antzerkia ikusi nahi dutenek aitzinetik izena eman beharko dute. Bi modu daude horretarako: kultur etxe azpian dagoen panelean norbere izena zerrendara gehituz, edo 625 98 60 13 telefonora deitu edo



Pantxika Lamur.

mezu bat bidaliz. Egunean bertan, lekua izanez gero, izena emana ez dutenek ere, sartzeko aukera izanen dute. Antzerkia akabatzerakoan berriz ere musikarekin plazara itzuliko dira agerraldia egitera.

Arrain salmenta egiteko modua aldatu dute

Otsailaren 12a izan zen Ama-leun arraindegiautoko arrain salmenta egin zuen azken eguna. Hemendik aitzinera, arraina nahi duenak bezperan arraindegira deitu (620 82 87 57 telefonora) eta etxez etxe-ko banaketa egingen dute, herrian astearte eta ortziraletan.

Larraburuko bazkide egiteko deia zabaldu dute

55 urtetik goitiko edozein herritar eta honen bikotekideak bazkide izateko aukera izanen du hemendik aitzinera urtean 15 euro ordainduz. Interesa dutenek larraburuaelkartea@gmail.com helbidera idatziz edo 623153438 telefonora deituz izen-eman dezakete.




ETXALARKO HERRI ESKOLA ETA UTZITAKOIA

Inauterietako izpiritua mantendu dute

Ekintza jostagarri eta dinamikoak jositako egitaraua burutu zuten Landagain eskolakoek Ortzegun Gizenean. Goizetik herrian barna musikaz giroturik eta mozzorrotuta, dantza, bertso eta herri kirolak egin zituzten, herritarrei inauteri giroa transmitituz. Herritarrek ere balkoien apainketan parte hartu zuten.

80 urteko Marta Maia herritarra omendu dute San Frantzisko egunean

Larraburua jubilatuen elkar-teak, San Frantzisko egunean, urteroko ohitura jarraituz 80 urte betetakoei omenaldia egin zien. Aurten Marta Maia herritarra izan zen omendua eta elkarteko kideek bere etxean eman zioten omenduaren oroigarria.



Marta Maia. FERNANDO OLAETXEA

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Arduo

arropa-denda
etxe osagarriak | lenteria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Inauterien seinalea balkoietan eta eskolan sumatu da

Eskolan mozorro desfilea egin zuten burbuilak errespetatuz eta herriko balkoiak dotore apainduak agertu dira

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ezberdin joan dira aurten inauteriak. Besta betiko moduan ezin ospatu eta balkoiak apaindu dituzte. Guraso elkartearen proposamena aitzinera eramanez balkoi dotoreak gelditu dira.

Bertzalde, eskolan ere, inauterietako agenda ez da betikoa izan. Beti aurkezten duten antzerki saio ikusgarria aitzinerago ospatzeko utzi dute. Horren lekuan, beti ere burbuilak mantenduz, eskolan mozorro desfilea antolatu eta disfrutatu egin zuten.



Inauterien seinalea izan da aurten.

Ipuin kontalariak eskolan

Haur Hezkuntzako umeei ipuina kontatzera Yolanda Arrieta idazlea etorri zitzairen eta Lehen Hezkuntzakoei, berriz, Garazi Albizua.

Bortzirietako berdintasun zerbitzuko bulegoa

Udalbatzak aho batez onartu du Bortzirietako berdintasun zerbitzua abian jartzea. Igantzian izanen du egoitza, eta udal guztiek hasierako erabakia osoko bilkuraren bidez berresten dutenean, berdintasun teknikaria kontratatzeko izapideak hasiko dituzte.

Sahararako janaria bildu du ANAS elkarteak

ANAS elkarteak (Saharako Lagunen Nafarroako Elkarte) deituta elikagaien bilketa egin dute herrian. Oraingoan ere erantzun ederra eman du Igantzik eta hainbat kilo bildu dituzte Bi-Bide janaridendan eta udaletxean. Otsailaren 14a izan zen bilketaren azken eguna.

Arbolak landatu dituzte Abelu eta Frain inguruetan otsailaren 7an eta 14an

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Sasoian gara eta, udalak deituta otsailaren 7an eta 14an herritarrek arbolak landatze- ra joan ziren Abelu eta Frain- go parajetara. Otsailaren 7an, 24an lagun elkartu ziren eta 400 arbol landatu zituzten, 300 haritz eta 100 pago eta otsailaren 14an, berriz, bildu ziren 20 lagunek 100 gaztain 500 haritz. Ondotik, gosari ederra izan zuten.



Landaketak Frain inguruan

Udal aurrekontua

Bertze aldetik, urtearen hasieran, 2021erako 702.570

euroko udal aurrekontuari hasierako onespina eman zitzaion. Joan den urtean baino 7.900 euro gehiago dira.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Bortzirietako Nobiliariorari buruz liburua

Bortzirietako Nobiliariora liburuaren aurkezpena egin zen otsailaren 5ean, Carlos Rilova eta Iñaki Garrido egileen eskutik. Andoni Esparzak egin zuen sarrera aurkezpena. Interesgarria izan zen gure antzineko kontuak ezagutzea eta jakitea horrek nola baldintzatzen duen gure nortasuna.



BIDASOA
ascensores

www.ascensoresbidasoa.com
info@ascensoresbidasoa.com



IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA

- Mota guztietako igogailuak jarri, konpondu eta mantentzeko zure enpresa gara.
- Urte askotako esperientzia duen lantalde tekniko aditua gara.
- Hurbiltasunak egiten gaitu berezi, beti zure segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartuz.
- Edozein abisu dela ere, berehalako erantzuna ematen dizugu.
- 24 orduko matxura zerbitzua ematen dugu.

IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53 | **ERRETERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49





Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA



Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602



Eskolako ikasle batzuk mozorro zuriz jantzita.

Eskolatik kanpo inauterien seinalerik ez da izan

Mozorro Zuriek irudiak eta bertsoak uztartuz bideo hunkigarria osatu zuten

NEREA ALZURI

Aurten ezinezkoa izan da, ez da ez Mozorro Zuri eta gazte-txoen eskerik izan, ez mozorro desfilerik, ez otordurik... Baina eskolan bederen, segurtasun neurriak hartuta, inauteririk ospatu zituzten. Ohitura den bezala, mozorro zuriz jantzita joan ziren eskolara eta urteroko Mozorro Zurien harrera ezin izan bazuten egin ere, seinalea egin zuten, kanta, herri kirol eta dantza eta jokoen bitartez.

Mozorro Zuriek, berriz, aitzineko urteetako inauterietako irudiak, herriko parajeen argazkiak, bertsoak eta musika

uztartuz, bideo ederra eta hunkigarria osatu zuten oroigarri gisa. Hona hemen lagin tiki bat:

Gaitz ezezagun honek bortizki digu erasan bizimodua aldatuz guztia jarri zalantzan gauzak aldatuko dira duda izpirik ez izan berriz gozatuko dugu ostatutan eta plazan goxo goxo bai kantuan kalejiran ta dantzan gogotsu eutsi goiari ta sinetsi bizitzan bi mila ta hogeitabian bilduko gara Arantzán.



'Sugarren mende' liburuaren aurkezpenean Xurio eta Urmeneta.

Liburu aurkezpena eta hitzaldia azken asteotako agendan

NEREA ALZURI

Liburu aurkezpena dela edo solasaldia dela, gehiago ikasteko bide eman dute azken aldian herrian egin diren solasaldiek.

Alde batetik, otsailaren 6an, udalak gonbidatuta, Helena Xuriok eta Asisko Urmenetak *Sugarren mende* liburua aurkeztu zuten eskolako gimnasioan. Aurkezpen polita egin zuten, hainbat azalpen eta jakingarri eman zituzten eta bertaratu ziren aunitzek ez zekizkiten kontu batzuk ere kontatu zituzten. XVII. mendera gibelera eginez, Leon Aranibar herritarra inkisidore nagusietako bat izan zen, Aranibar baserriko semea. Urda-zubiko monasterioko burua eta Espainiako erregearen ordezkariaren espioi nagusia izan zen eta gure herrietan gertatu ziren sarraskien bu-



Paniaguaren hitzaldia.

ruetako bat, bertzeak bertze, zugarramurdiarrak Logroño-
ra eraman zituen.

Bertzalde, otsailaren 13an, Guraso Eskolak antolatuta, Sergio Paniaguak, medizina biologiko psikosomatikoan aritzen denak, *Koronabirusaren historia luzea* izeneko hitzaldia eman zuen eskolako gimnasioan. Datu eta jakingarri aunitz azaldu zituen eta bildutakoan artean interes handia piztu zuen.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

DESIN BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria astelehenerik ortziralera
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Antenak

Sukaldeak, etxetresnak
eta orain sukaldeko diseinua 3D

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Lan aferak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

Errigoraren kanpaina martxoaren 4an hasiko da

TITIPI-TTAPAKO harpidedunek *erran.eus* webgunean eginen den lehiaketan parte hartuz ere eskura dezakete

TITIPI-TTAPA

Hemen da berriz Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina. Martxoaren 4tik 24ra bertako oliba-olio birjina estra (5 litroka) eta kontserba, arroz eta pasta-sortak (12 unitateka) eskatu ahal izanen dira, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan. «Ekoizteko erak alda daitezten, kontsumitzeko moduak aldatzeko bide bat proposatu nahi dugu. Izan ere, gaurko kontsumoaren araberakoa izanen da biharko ekoizpena», diote.

Banaketa apirilaren bigarren hamabostaldian eginen dute eta, salbuespenak salbuespen, produktu guztiak aldi berean jasoko dira. Eskaera egiterakoan aukeratu behar da produktuak jasotzeko puntua eta bertan zehaztutako egun eta ordutegian pasa beharko da jasotzera. 200 bat herritan daude banaketa guneak. Ordainketa txartel bidez egiten dutenen kasuan, bi zatitan ordaintzeko aukera izanen da (erdia martxoan eta bigarren zatia apirilean). Hala egiten ez duenak, dena batera or-



Ekoizlearen jatorrizko prezioan eskura daitezke produktuak. UTZITAKO ARGAZKIA

dainduko du, eskudirutan, produktuak jasotzean. Hau guztia auzolanean antolatzen da. Hain zuzen, herriz herri informazioa zabaltzen, eskaerak bideratzen eta produktuak biltegitatu eta banatzen ari direnen lan boluntarioari esker, norbere herrian jaso daitezke produktuak ekoizlearen jatorrizko prezioan. Hau da, «olio-errotan edo kontserba-etxera joanda ordainduko zenukeen prezio berean».

Harpidedunen artean lehiaketa

Azken urteetan, TITIPI-TTAPAKO harpidedunak zuzenean sartzen ziren Errigorako saskien zozketan. Aurten, Meknaren bidez harpidetza egin dutenek *erran.eus* webgunearen bitartez lehiaketa batean parte hartu beharko dute eta bertan proposatuko diren kanpainari buruzko hiru galderei erantzun. Zuzen erantzuten dutenen artean eginen da zozketa.





Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Plateretik baratzera

errigora.eus

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

Martxoaren 4tik 24ra



Askin Haur Eskolan hasiak dira ikasturte berria prestatzen

Martxoaren 6an ate irekien jardunaldia izanen dute eta ikasle berriek martxoaren 1etik 15era egin behar dute eskaera

MARGA ERDOZAIN

Askin Udal Haur Eskolak heldu den ikasturterako onartze eta matrikula prozedura finkatu du. Hiru data azpimarratu behar dira: martxoaren 6an (10:00etatik 12:00etara), atea zabalik jardunaldia egingen dute. Aurten hitzordua nahitaezkoa izanen da (948 45 18 68). Bigarrena, martxoaren 1etik 15era ikasle berriendako eskaerak aurkezteko epea zabalduko da. Urrats hau egiteko hiru modu daude: udal txeko bulegoetan (hitzordua lortzeko 948 45 00 17 telefo-

nora deituz); egoitza elektronikoa bitartez eta posta elektronikoa bitartez (santesteban@doneztebe.es).

Matrikula maiatzaren 21etik 28ra Informazio gehiago udalaren webgunean edota Askin eskolan eskatzen ahal da (948 45 16 68 telefonoan). Hirugarren prozeduraren atala, maiatzaren 24tik 28ra behin betiko matrikula egiteko epea zabalduko da. Azkeneko urrats hau egiteko arestian aipatutako hiru bideren bitartez burutzetik izanen da.

Xabierraldia bertan behera gelditu da aurten

Erreka Kirol elkarteak urtero antolatzen duen hitzordu gusagarria izaten da Xabierraldirako irteera. Txango hau pandemiaren ondorioz bertan behera gelditu behar izan da. Ibilaldien hitzordurik ez baita izanen, irteerarik ere ez du prestatuko Errekak.

Ipuin Txokoaren hitzorduak segitzen du astartetan

Liburutegian egiten den Ipuin Txokoak aurrez aurreko jardunarekin segitzen du, astartetan 11:00etatik 12:00etara. 0-3 urte bitartekoentzat zuzendutako saioetara hurbiltzeko gonbita egin du Haize Loirak, guneko magiko honen gidariak.



UTZITAKOAK

Zenbait portaera eta gertakari salagarri

Udalak gaitzetsi ditu *Ez inauterietan* gertatutako hainbat jokamolde eta gertakari. Portaera desegoki horiek eta sortutako zikinkeria salagarri direnez, herriko etxetik gonbita egin dute hausnarketa kolektibo bat egiteko, etorkizunean horrelako argazkiak berriro errepika ez daitezen.

Martxoaren 8ko ospakizunei keinu liburutegian

Azkeneko urteetan bezala, aurtengo urte berezi honetan ere, liburutegian martxoaren 8ko ospakizun eta aldarrikapenekin keinu txiki bat egingen dute, feminismoa eta emakumeen gaiak jorratzen dituzten liburuen erakusketa eta gomendioak plazaratuz.

Iratxe Kontsumitzaileen zerbitzua martxoan

Iratxe kontsumitzaileen zerbitzua martxoan erabiltzeko datak honako hauek izanen dira: martxoaren 5 eta 12an. Hitzordua alde aurretik eskatu behar da 948 45 17 46 telefonoan. Beti bezala, kontsumoarekin lotutako zalantzak argituko dituzte.




- ATE IREKIEN JARDUNALDIA:

Martxoak 6, larunbata, 10:00etatik 12:00etara (Hitzordua hartu behar da 948 45 18 68 zenbakira deituz).

- AURREMATRIKULA: Martxoaren 1etik 15era.

- MATRIKULA: Maiatzaren 24tik 28ra.



Elizagibela karrika 8, behea. | DONEZTEBE | NAFARROA. | askinhaureskola@gmail.com

MALERREKA-BERTIZARANA



Kamisetaren irudia.

Malerrekako Ernaik kamisetak paratu ditu salgai

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Ernaik *Hauts hartatikan ustekabeen noizbait ginaden gu ernai* esaldia eta Mendauro ermitaren irudia duten kamisetak egin ditu. Sare sozialen bidez kamisetaren diseinua zabaltzarekin batera, eskuratu nahi dutenek sare sozialetara (Instagramera zein Twitterera) edo gmailera mezu (*malerrekaernai@gmail.com*) idatzi behar dute.

Martxoaren 8aren bueltan Lilatoia eta mobilizazio deialdia

Martxoaren 8an, arratsaldean Doneztebeko eskola pareko biribilgunean elkartuko dira

TTIPI-TTAPA

Emura Bertizarana eta Malerrekako Talde feministak martxoaren 8aren harira, karririk hartzeko ekitaldiak antolatuko ditu.

Hilaren 6an, larunbatean, Malerrekako Bertizaranako Lilatoia izanen dute. 11:00etan Iturengo plazatik abiatuta Donezteberaino joanen dira, Uraren Bidetik. Lerro hauek idazterako orduan, Donezteben mokadutxo batzuk eskaintzea posible izanen litzatekeen aztertzen ari ziren (bideratzeko arazorik izan

ezean, autogestionatua egiteko). Martxoaren 8an, astelehenan, Malerrekako eta Bertizaranako mobilizazioa egiteko dute. Arratsaldean bilduko dira (ordua zehazteke) eskola pareko biribilgunean. Ekimen honetan parte hartzeko jantzi, osagarri edota bertzelako elementu moreak eramateko deia egiten dute.

Bien bitartean, martxoaren 7an Sara eta Zugarramurdi artean egiteko den eskualdeko manifestazioarekin bat egiteko deia egina dute Emurako kideek.

Ahozko ondaretik jasotakoak sarean eskura

Maite Lakarrek Nafarroako ahazko ondaretik jasotakoak *Xaldun kortin, Jolastu gurekin!* egitasmoaren barne bildu zituen 2014an. Orain, Euskokultur Fundazioak, eduki guztia *xaldunkortin.educacion.navarra.es* web orrialdean jarri du eskura.

Lanean hasi da Malerrekako Txuri-Urdinak peña

Donostiako Real Sociedad klubaren jarraitzaileak bilduten dituen Malerrekako Txuri-Urdinak peña ofiziala lanean hasi berri da. Oraingoan, sare sozialetan orrialdeak zabaldu ditu eta agudo bertze ekitaldiak antolatzen eta prestatzen hasi nahi luke.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA



Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Baztan Bidasoako sagardotegiak



Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Elizagibela Promociones S.L.

ETXEBIZITZA PROMOZIOA

18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com
T. 643 466 998



- 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroekin Doneztebeko Elizagibela kalean.
- Lokal komertzialak.

«Memoria historikoa oroitzapen ttikiei esker josten da»

DANI MARTIRENA INDART LEGASAKO KAZETARIA ETA IDAZLEA

«Gizartearen zauriak azaleratzeko nahiak» bultzatuta, lau album ilustratu egin dituzte Dani Martirenak eta Ana Ibañezek. 'Amonarenean kea' lana «zaintzen eta babesten» ari dira orain

TTIPI-TTAPA

Irudiak eta hitzak lotuz, album ilustratuak egiten ditu Dani Martirenak (Legasa, 1973). Hitzek falta dutena irudietan bilduz eta irudiek dutena hitzetatik ezabatuz, Ana Ibañez ilustratzailearekin batera egin duen ibilbideaz eta azken lanaz aritu da TTIPI-TTAPAREKIN.

Narrazio laburrekin hasi zenuen bidea eta, Ana Ibañezekin batera, album ilustratueta jo zenuen gero. Orduetik ez zara gelditu...

Hankaz gora du amak mundua izan zen lehenbizikoa. Ondotik, *Jonek Jone izan nahi du* plaza-ratu genuen. Biak autoekoizpenaren bidetik sortu genituen. Etxepare Sariari esker, *Cosimoren katiuskak* Pamiela argitaletxeak argitaratu zuen eta, azkena, *Amonarenean kea* ere geronek editatua da.

Laurek badute hari komun bat... Azken honetan Anaren ilustrazioak, ohikoa duen abstrakzioetik aldendu arren, argi dago bereak direla. Eta, gaiari dagokionez, guztietan gizartearen zauriak azaleratzeko nahia dago. Azkenekoan inoiz baino gehiago. Horren lekuko, Mariasun Landaren hausnarketa bat geureganatu dugu. Berak haurrei edozer gairi buruz solas egin behar zaiela erraten du, ez dirrela tuntuak... Hausnarketa honek gure liburu guztietarako balio du: lehenbizikoan hipoteka ezin ordaindu dabilen emakume baten istorioa kontatu genuen; *Jonek Jone izan nahi du* liburuan haurren etor-



Dani Martirena eta Ana Ibañez 'Amonarenean kea' lana esku artean dutela.

kizuneko lanbideez aritu ginen, zakila duen neska baten gogoia normaltasunez landuta; hirugarrenean ingurumenarekiko konpromisoa eta kapitalismoaren aurkako ikuspegia bildu genituen. Orain, memoria historikoa oroitzapen ttikiei esker josten dela aldarrikatu dugu.

Amona transmisioaren sinboloa dela erran dezakegu. Eta kea?

Batetik, amonaren etxeko tximiniatik kea ateratzen delako eta, bertetik, oroimena lausoa delako eta kea bezala desagertzen delako.

Memoria da kontaktaren ardatza edo kontaketa memoriari keinu egiteko aitzakia?

Aitzakia. Kontakizunean etxe guztietan dauden oroitzapen

txikiak gailentzen dira: hostopilen zaporea, sukaldea, tximiniatik ateratzen den kea... Baina bi orrialdetan jauzi ttiki bat egiten du liburuak: amonak aitona gerran hil zutela erraten du, orduko argazki bat bildu dugu...

Argazki horretan lotzen dira memoria eta oroitzapena. Eta, modu berean, argazkiak bertze historia bat biltzen du.

Gure asmoa hasierako historiarekin gelditzea zen, album ilustratu tradizionala egitea, alegia. Argazki zahar batean errezeta bat idatzi eta oparitu nahi genuen. Argazki baten bila genbiltzala argazki zoragarri hori aurkitu genuen, eta hurrek ilustraziokoekin lotura zutela

ikusitu genuen. Aldi berean, gizon horrek haurrei itsasoa ikustera eramanen zituela erran zien eta horregatik hil zuten. Hor ikusten da gerraren gordintasuna. Bigarren ipuin hori erans-tea erabaki genuen, helduei zuzenduta. Hurrek argazkiak nor diren galdetuko dute eta...

Zenbat du errealitatek eta zenbat fikzioetik?

Bigarren kontaketa hori errealitatean gertatua da. Lehenbizikoak, berriz, ilustrazioetan badu errealitatek zerbait. Anak marraztu dituen horiek bere ahizpa eta bera, bere lehengusuak eta amona dira. Anaren plana igandero amonaren etxera joatea zen. Fikzioetik ere badu horrek. Amatzik frijituak prestatzen zizkien, baina Anak edertasun gehiago ikusi zien marrubizko eta kremazko hostopilei...

Sortze prozesuari dagokionez, gainerakoak ez bezalakoak da...

Lehenbiziko Anak marrazkiak egin zituen, gastronomia eta oroitzapenak gaia ardatz hartuta. Horiek ikusi nituenean kontatzeko zerbait izanen zutela pentsatu nuen. Orain arte ilustrazioa testutik abiatuta egin izan dugu... Modu honetara lan egiteak liburuari bertze oreka bat eman dio. Album ilustratuaren arriskua testuetan dagoena errepikatzea izaten da eta horrela lan eginez, marrazkietan zegoena ez errepikatzen saiatu naiz. Hala ere, lotura batzuk badaude: lehenbiziko ilustrazioan, adibidez, zaldiak bezala eskaileretan trostan egiten zutela aipatzen dut eta eskailera batzuk daude, haurrak pozik daude irudietan baina gerra aipatzen denean haur batek labana du eskuan...

Album ilustratuak haurrentzat ez ezik helduentzat ere badira.

Bai, haurrei zuzenduta dauden arren, helduok ere album ilustratuarekin goza dezakegu. Gainera, irakurketa partekatua interesgarria izan daiteke. Horrek bertze ate batzuk irekitzen ditu, bakoitzaren ikuspegiak solas egiteko eta elkarrengandik ikasteko aukera ematen du.

Giraldoren heriotzari buruzko dokumentala Goya Sarietarako

Goya Sarietarako izendatua izan den dokumentalean semearen lekukotasunak bildu dituzte

TTIPI-TTAPA

Biografía del cadáver de una mujer dokumentalean Yamiled Giraldo Iturengo herritarri gertatutakoa bildu zuen Mabel Lozano zuzendariak, 2009an Cordovillan tirokatua izan zen emakumezkoarena, hain zuzen. Hori bera film laburren dokumentalen kategorian Goya Sarietarako izendatu dute.

Prostituzioaren eta sexu gehiegikeriaren biktima
Dokumentalak Yamiled Giraldoren historia kontatzen



Dokumentaleko irudi bat.

du. Giraldo kolonbiarra zen sortzez baina aspaldian Iturenen bizi zen senarrarekin eta lau seme-alabekin. Giraldok eta bertze emakumezko

batzuek prostituzio etxe bateko jabea salatzea erabaki zuten, eta prostituzioan aritzera behartu zituela eta sexu abusua egin zizkiela leporatu zioten. Epaiketa egin eta prostituzio etxeko jabea zigortu zuten.

Espetxetik hiltzeko agindua

Prostituzio etxeko jabeak, ordea, hiltzeko agindua eman zuen espetxetik. 2009ko apirilean hil zuten Giraldo, Cordovillan, tiroz, bere 13 urteko semea ondoan zuela. Epaiaren arabera, prostituzio eta sexu gehiegikeriako kasu batean lekuko gisa aurkezteagatik hil zuten.

Hain zuzen, epaiak prostituzio etxeko jabeak espetxetik hiltzeko agindua eman zuela ondorioztatu zuen, emakumeak lekukotza hura emateagatik.

Dokumentalean Cristofer semearen lekukotasunak ere ageri dira.

Naroa Elizalde Nafarroako Pilota Txapelketan

Nafarroako emakumezko pilotarien arteko txapelketan aritu da Naroa Elizalde zubietarra. Joan den larunbatean, otsailaren 20an, jokatzekoa zuten finala Labriten. Zubietarra Irantzu Etxebeste bertarrarekin bikote osatuta, Andrea Aldaregiaren eta Olatz Ruiz de Larramendiren aurka aritzekoa zen. Pilota mistoaren berriki hasi da Elizalde, baina ederki moldatu da orain artean. Ea horrela segitzen duen aurrerantzean!



Naroa Elizalde.



NAFARROA IPARRALDEKO



ZERBITZU OFIZIALA

WWW.ARINCAR.COM
sampiaragon@sampiaragon.com
T. 948 45 03 54 M. 619 13 36 92
LEITZAKO BIDEA, 41 · DONEZTEBE

SALMENTAK

- AUTOAK
- FURGONETAK

KONPONKETAK

- MEKANIKA
- TXAPA ETA PINTURA
- ELEKTRIZITATEA



Martxotik aitzinera zura zizelkatzen ikasteko aukera

Bi taldetan banatuko dira, hasiberriak eta arituak banatuz eta Donezteben bilduko dira asteazkenetan

PABLO IRASTORTZA

Zura-zizelkatzen edo lantzen ikasteko talla ikastaroak, elkarteak antolatzen dituen saioen artean egon dira azken urteotan eta Elgorriagan egiten ziren gehienetan. Aurten, ordea, hainbat arrazoiengatik ezin izan da orain arte eskaini.



Joxepa zena.

Martxoan martxan

Martxo hasieran paratuko dira martxan eta parte-hartzaileak Donezteben bilduko dira, astean behin. Asteazkenero bi orduz, 16:00etatik 18:00etara, Jose Inazio Telletxea eta Migel Etxeberriaren gidaritzapean bilduko dira.

Bi taldetan ariko dira

Lan horietan lehen ere arituak direnak alde batetik eta hu-

tsetik hasten direnak bertetik, maisu banarekin bilduko dira, eta bakoitzaren trebetasuna oinarri hartuz, ikasi edo hobetzeko aukera izanen dute.

Izen-ematea zabalik

Parte hartu nahi dutenek badute oraindik lekua. Denbora-pasa polit eta aberasgarri honetaz ikasteko eta gozatzeko, oraindik badago izena emateko aukera.

Nahi dutenek nahikoa izanen dute Arkupeak elkarteak 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 telefonoetako batera deitzea. Goizez, 09:00etatik 13:00etara jakinaraziz, eman ahal izanen dute izena.

ASTEAZKEN ARRATSALDETAN BILDUKO DIRA DONEZTEBEN

Fernando Etxeberria Ezkurra herriaz aritu zen ETB1eko 'Biba zuek' saioan

PABLO IRASTORTZA

Lehendik ere bagenekien, Euskal Herriko bazter hauek jende emankor aunitzen sehaska izan direla eta direla. Horietako bat, hagitz ezaguna gainera, ETB1eko *Biba zuek!* saioan, Mikel Elizegi goizuetarrak elkarriketatatu zueb. Hainbertze urtez

ТІПІ-ТІПАКО lerro hauen egilea eta elkarteak gatza eta mamia izan den Ezkurrako Fernando Etxeberria. Bere bizibide luzee-na Gipuzkoan eman ondotik, jaioterrian eta inguruetan dabil, mendiaz, kulturaz eta ongi merezitako erretiroaz gozatzeko, Ohi bezala, ederkierakutsizuen,


GUTUNA

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

Gure lagun Joxepari, bihotzez

Batzuetan, goizeko eguzki epel eta argiak deabru aurpegia duen arratsaldea goibel eta desdixatua bihurtzen duen antzera, utzi digu bihotza eta arima, otsailaren 9an Beratik etorri zitzaigun zorigaitzoko berriak. Nola ba onartu, Joxepa, zendu zarela? Azken urte hauetan, Arkupeak elkarteak herriko ordezkari lanak egiten zenituen, zintzo arraio eta beti laguntzeko prest (Angelines eta Paularekin batera).

Urroztarra jaiotzez, bizitzaren erdia baino gehiago Beran bizitua, familia ederraren sortzailea... bai, denori



Joxepa zena.

min jasangaitza eragin diguzu, hain azkar alde egin diguzulako; ez genuen espero eta, batez ere, ez zenuen merezi! Ziur gaude nahiago zenuela, askotan zitala eta krudela den arren, bizitzako gazi-gozen oholtza gainean dantzatzen jarraitu.

Badakigu, egunerokoez kanpo ditugun hainbat afera txikiez –etxeko txikiak, bidaiak, lagunak, otorduak...– zenbat disfrutatzen zenuen. Sinets ezazu –elkartean ereindakoa jaso baituzu– hagitz maitatua eta

«ELKARTEAN HAGITZ MAITATU ETA ESTIMATUA IZAN ZARA»

estimatua zinela, eta ez ginela sekula santan aspertuko, zure borondateaz, lanaz, laguntzaz eta ezpainetan itsatsia zeneraman irribarreaz.

Arkupeak elkarteak bat egin nahi du, zure senar, seme-alaba, biloba, senide, familia eta maite zaituzten lagun guztiak, eta besarkada estua eskaini. Behar edo nahi izanez gero, Doneztebeko elkartearen ateak eta kideen besoak eta bihotzak irekiak dauzkazue.

Ez adiorik, Joxepa, laster arte! Goian bego!



Fernando Etxeberria ia osatua duen borzgarren lanaz aritu zen.

beretzat sekretu gutxi dituela sorterrriak. Ia osatua daukan

borzgarren liburua ere nondik norakoez ere mintzatu zen.

Otsonta eskolakoek ihauteriak ospatu dituzte aurten

AINTZANE LEITZA

Otsailaren 12an, herriko eskolako irakasle eta ikasleak kaldereroz jantzi ziren eta ihauteriak ospatu zituzten. Aurtengo egoera dela eta, herrian ez dira ospatuko, baina eskolakoek seinalea egin zuten. Oso dotore zeuden

jantzita eta frontoian egindako jaialdia eta jolasekin, oso ongi pasatu zuten. Bejondeizuela!

Ea heldu den urterako, eskolako neska-mutikoek ez ezik, gazte eta helduek, denok batera ihauteriak ospatzeko aukera dugun!



AINTZANE LEITZA

Heliportua eraikitzen hasiak Saldiasen

Otsail hasieran, hilerriaren aurrean dagoen zelai batean, larrialdietarako heliportua egiten hasi ziren. Heliportu honek inguruko herrietako larrialdi zerbitzuetan (sute, istripu...) helikopteroa erabiltzeko aukera eskainiko du eta, hortaz, segurtasuna hobetzen lagunduko du.



Piketeak nola egiten diren ikasi zuten otsailaren 13an. UTZITAKOIA

Piketeak egin ondotik haziei buruz jakiteko elkartuko dira

Martxoaren 14an dute hurrengo hitzordua Abañon eta haziak eraman eta elkarbanatzeko deia egin dute

TTIPI-TTAPA

Piketeak egiten ikasteko otsailaren 13an Plazako Bordan egindako erakusketaren ondotik, auzolanak eta baserriko lanak jendaurrera plazaratzeko asmoak aurrera jarraitzen du eta Dagoenean Bonbon taldetik, udaletik eta Cederna Garalur elkartetik hurrengo hitzordua martxoaren 14an izanen dela lotu dute. Bertako lagunek haziak eta hazitegiak izanen dituzte hizpide eta denen artean jakintza hori elkartrukatzeko da asmoa. Abañon, 10:30 aldera elkartuko dira, eta norberak

bere haziak ekartzera eta elkarbanatzera animatzeko eskatu dute tailerra bideratuko duten lagunek.

Berataratu nahi duenak jakinazi egin beharko du *arano.udala@gmail.com* helbidera idatziz.

Aurreko zenbakian aipatu bezala, baserri munduko egitekoak auzolanean nola egiten diren erakustea eta zabaltzen saiatzea da hilerro egin nahi diren elkarretaratze hauen asmoa. Formazioa eta nekazari eta abeltzain munduko lanen jakintza elkartrukatzeko izanen lirarteke helburuak.



Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



ORBELA
SENDERSMIDA ATERPETAIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



744 484 361

ttipi-ttapa



Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com





MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

«Herri Aretoa hileta pertsonalizatuak egiteko toki egokia da»

JUNKAL OTXOTORENA SAGASTIBELTZA LEITZAKO ZINEGOTZIA

Herritarrei hileta pertsonalizatuak egiteko aukera emanez, Herri Aretoa horretarako erabilgarri jarri du udalak. Horrekin batera, halako agurrak egiteko lagungarri izan daitekeen gida ere prestatu du

G. PIKABEA

«Bakoitzak bizitzan egin duen ibilbideari egokitutako agurra izan beharko luke eta Herri Aretoan hileta pertsonalizatuak egiteko aukera emanez, horixe nahi izan dugu». Hutsune bat betetzea zen Leitzako Udalaren helburua eta halaxe egin dute. Gaiaren inguruan orain arte udalak landutakoa Junkal Otxotorena zinegotziak aurkeztu zuen otsailaren 4an Herri Aretoan, Iñaki Olaizola, *Heriotza, hileta-erritua eta dolua Euskal Herrian* liburuaren egilea, ondoan zuela. Gisa honetara, «udalak herrian aspalditik zegoen behar bati erantzuna» emanen diola dio Otxotorenak: «urteetan hainbat herritarrek adierazi izan dute elizatik kanpo hiletak egiteko toki aproposik ez zegoela».

Herri Aretoaren erabilpena arautzeko ordenantza prestatzen ari zirela egin zuen udalak aurreneko urratsa: «Herri Aretoa ohikoak diren ekintzetarako arautzen ari ginela, hileta pertsonalizatuak egiteko leku egokia izan zitekeela ikusi genuen». Hala, «herriko aniztasun kultural eta sozialari» atea zabalduz, gaiari gehiago sakontzea erabaki zuten.

Tokia eta gida

Dagoeneko zerbitzua zabalik dago eta hileta pertsonalizatua Herri Aretoan egin nahi duen edozeinek eskura du aretoa. Otxotorenaren hitzetan, «interesatuek udaletxean egin behar



Otxotorenak hileta pertsonalizatuarentzako udalak egin duen gida azaldu digu.

dute eskaera eta erabileraren tarifa ordaindu behar dute».

Tokia eskaintzetik haratago, udalak lagungarri izan daitekeen gida ere prestatu du. «Gai honetan oso praktika gutxi dagoela ikusita, eredu bat garatu dugu, eskema bat». Hori bai, Otxotorenak argi utzi nahi izan du «guztiaren oinarrian hildakoaren bizitzan oinarritutako ospakizun bat egitea dagoela. Helburua hildakoaren edo bere hurbilekoen borondatea errespetatuz, modu berezian, pertsonalizatua eta koherentean agurra egitea da».

Gida lagungarri

Gidan, besteak beste, zeremonian eta aurretik kontuan izan beharreko hainbat jakingarri

bildu dituzte: «aretoa atontzeko proposamenak –gradak irekita, aukiekin, gorputza bertan dela... nahi den–, gonbidapenak nola egin, zeremonia gidatuko duena nola aukeratu eta zer egin beharko lukeen... bildu dugu gidan. Horrekin batera, agurraren irekiera prozesua nola egin, bizitza eta heriotzari buruzko gogoetak, hildakoa gogoratze koan kontuan hartzekoak eta ekitaldiaren amaiera nola izan daitekeen ere ageri da». Otxotorenaren hitzetan, «behartuz gero, osotasunean edo zati bat erabil daitekeen gida da».

Elkartasun taldea

Tokia utzi eta gida lantzeaz gain, «hileta prestatu behar

dutenei laguntzeko lantaldea» sortzea dute orain begiz joa. «Laguntzeko prest egonen liratekeen herritarrekin elkartasun talde bat sortu nahi dugu eta horretarako deia egin diegu herritarrei». Hori da «udalaren proposamena. Taldea ateratzen bada gure asmoa fundazio bat sortzea da, baina herriak eskatzen duen dimentsioa emanen diogu». Lantaldean parte hartu nahi dutenek 617 38 56 22 telefonora dei dezakete.

Kendu ez, osatu bai

Leitzako Udalak 2010ean batzar aretoan hileta zibilak egiteko ordenantza onartu zuen. Otxotorenak argitu duenez, «urte hauetan elizatik kanpoko agurrak izan dira, besteak beste, kalean edo mendi inguruan, baina batzar aretoa ez zen egokia. Hileta edo agur bat egiteko lekuak zerbait esan behar du». Alde horretatik, Herri Aretoa «toki aproposa» dela nabarmendu du: «azpiegitura egokiak ditu».

Garbi utzi nahi izan du «ez diogula inori deus kendu nahi izan eta zerbitzua osatu nahi izan dugula. Bere agurra egiteko tokirik egokiena dela sinesten duenak hor izan du aukera, baina orain arte agurrerako toki aproposik ez zuenak orain Herri Aretoan badu aukera». Otxotorenaren ustez, «agurrak bakoitzaren sinesmenen eta esperientziaren araberakoa izan behar luke».

Hausnarketarako atea zabalik

«Hausnarketarako» gonbita ereluzatu du leitzarrak: «bakoitzak nolako agurra nahi dugun hausnartu beharko genuke. Zaila egiten zaigu gaiari buruz aritzea, baina Iñaki Olaizolak esan bezala, hiltzen ikasi behar dugu eta gure bizitzako azken etapara ailegatzean, nola hil nahiko genukeen, nolako agurra nahiko genukeen eta ingurukoek nolako dolua izatea nahiko genukeen hausnartu beharko genuke». Sinetsita dago «gaiari aurrez aurre begiratzea oso interesgarria» dela.

Atekabeltz eta Herri Aretoan kultur eskaintza zabala

Aste honetan olerki musikatuak izanen dira Herri Aretoan eta Mursegoren kontzertua Atekabeltzen

TTIPI-TTAPA

Otsail bukaeran eta martxo hasieran ere ez da ekitaldirik faltako, udalak Herri Aretoan eta Atekabeltz Herriguneak Atekabeltzen hainbat hitzor-du antolatu baitituzte.

Olerki musikatuak eta Mursego taldearen kontzertua

Ostiral honetan, esaterako, *Bi(zi)hotsak* emanaldia egingen dute Mikel Illarregik eta Ione Gorostartzuk. Udalak antolatutako hitzorduan, olerki musikatuak errezitatuko dituzte eta 19:00etan Herri Aretoan izanen da. Aurretik Astiz eta Maimurren sarrerak hartu beharko dira, bi eurotan.

Biharamunean, larunbatean, Mursego taldearen musikaz gozatzeko aukera izanen da Atekabeltz Herriguneak antolatutako hitzorduan. Ikuskizun berezia izanen dela iragarri dute eta sarrera dohainik izanen da. Edukiera mugatua izanen denez, gonbidapenak asteazkenean, hilaren 24an, hartu beharrez ziren, 18:00etatik 20:00etara Atekabeltzen.

Irakurketa feminista

Irakurle talde feministak martxoaren 4an egingen du hurrengo hitzordua. Aroa Uhartre herritarrak itzuli duen *Erle Langileen Amodioak* liburua irakurtzeko deia egin dute eta Uhartre bera solasaldian izanen da. 18:30ean bilduko dira Atekabeltzen.

Martxoaren 6an antzerkia

Martxoaren 6an, larunbatean, *Erradikalak ginen* antzezlanak izanen da Herri Aretoan, 18:00etan, udalak antolatuta.



Pleura martxoaren 13an ariko da.

Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzerkilari eta ipuin kontalariak bakarriketak eta bertsoak tartekatuko dituzte. 'Neska gazte promesa' etiketaz, zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, beldurraz, biolentziaz eta beste hainbat gaiz ariko dira.

'Sugarren mende'

Orain dela 410 urteko sorgin ehizari buruz Asisko Urmenetak egin duen *Sugarren mende* album ilustratua martxoaren 7an, igandean, Herri Aretoan aurkeztuko dute, 18:00etan. Liburuaren abiapuntua Helena Xuriok egingandako ikerketa izan zen eta Urmeneta eta Xurio biak aurkezpenean izanen dira.

Pleuraren kontzertua

Pleura taldeak azaro hasieran argitaratu zuen *Bakarrilketa* diskoa martxoaren 13an Herri Aretoan aurkeztuko du, 19:00etan. Udalak antolatu du eta diskoa aurkezteko emanen duten aurreneko kontzertua izanen da. Sarrerak martxoaren 1etik aurrera bost eurotan jarriko dituzte salgai, Astiz eta Maimurren. Lau gaztekosatzen dute taldea, tartean Julen Ceballos herritarrak.



BERDINTASUN ZERBITZUA

Hautetsiak berdintasunari buruz ikasten

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik, Leitza eta Aresoko hautetsiek berdintasunaren inguruko formakuntza jaso dute Idoia Lekuerekin. Aurreneko saioan emakume eta gizonen arteko desberdinkeriaz aritu ziren eta bigarreanean udal jardueran genero ikuspegia nola txertatu landu zuten.



UTZITAKOA

Galder eta Aitorri elkartasuna adieraziz

Ankerkeriari Stop herri egitasmoarekin bat eginez, eta *Orain inoiz baino gehiago* lelopean, Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteak libre uzteko eskatu zuten hainbat lagunek otsailaren 6an plazan egindako elkarretaratzean. Espainiako Auzitegi Nazionalak launa urteko espetxe zigorra ezarri die.



Ilogailuen instalazioak.

Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400

www.inelsazener.com



Amazabal institutuko ikasleak patioan. E. IRAOLA

Amazabal institutuko jangela eta garraioa kolokan

Guraso elkarteak garraio publikoa eskatuz sinadura bilketa abiatu du *change.org* plataforman

TTIPI-TTAPA

«Haserre, galduta, disgustatuta...». Halaxe mintzatu da Estitxu Lertxundi Amazabal institutuko Guraso Elkartearen lehendakaria, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak institutuko jangela zerbitzua bertan behera uzteko erabakiaren harira. Lan asko egiten ari direla dio, baina «Hezkuntza Departamentuaren aldetik borondate falta» ikusi dute.

Gobernuak 2019an jakinarazi zien ikasle garraiatuek jangela zerbitzua izan dezaten eman izan duen dirulaguntza (66.000 euro) kenduko zuela. Gobernuak Leitzako institutuaren kasua «irregularitasuna eta salbuespena» dela erranez arrazoitu du erabakia, Nafarroa osoan jangela duen institutu bakarra baita. Baina orain arte egindakoa «diskriminazio positiboa» izan dela iruditzen zaio

Lertxundiri: «hemengo bizi baldintzak kontuak hartu behar dira. Ez gaude Iruñean, ez dugu hamar minutuero autobusik eta Azkarateko ikasleek, adibidez, 07:00etan hartzen dute instituturako autobusa».

Otsailaren 16an jaso zuten Hezkuntza Departamentutik azken oharra: «2021-2022 ikasturtean DBHkoen jangela zerbitzua ez dute diruz lagunduko eta Batxilergo ikasleek autobusa erabili ahal izanen dute, beraien ordutegiak DBHkoenarekin bat egiten badu eta autobusean tokia baldin bada».

Ikasleen esfortzua

24 udalerriri eta kontzejutako ikasleek hartzen dituzten Amazabal institutuak: Leitza, Ezkurra, Areso, Arano, Goizueta, Araitz, Betelu, Lekunberri eta Larraungoak. Eta «herri txikietako ikasleen esfortzua kontuan hartu

beharrekoa» iruditzen zaio lehendakariari: «Herri handietako ikasleen aldean, desabantailak dituzte, oso goiz esnatu eta berandu etxeratzen dira. Egoera horretan familia askok alde egin dute beraien herrietatik baina beste batzuek hemen jarraitzen dugu. Landa eremuko despopulazioari aurre egiteko proiektuez hitz egiten dute eta gero halako zailtasunak?».

Orain arte denak elkarrekin

Hain eremuko zabaleko ikasleak izaki, DBHko eta Batxilergoako urte luzez elkarrekin ibili izan dira autobusean: «DBHkoek 14:20 arte izaten dituzte eskolak, eta Batxilergoak 15:15 arte. Tarte hori, DBHkoek bazkaltzeko aprobetxatzen dute, eta Batxilergoak ateratzean, denak elkarrekin, autobus berean itzultzen dira». Hala, «DBHkoak bazkalduta joaten dira etxera eta Batxilergoak garraioa bermatua dute».

Jangela eta garraioa zintzilik

Azken erabakiak, ordea, hankaz gora jarri die orain arteko antolaketa. «Dirulaguntza kendu arren, garraiorik gabe, gure aldetik ere ezin dugu jangela zerbitzua antolatu. Gainera, familia gehienek ez dute ordutegia bateratzea nahi». Horren

seinale da guraso elkarteak egindako galdeketa: «Familien artean egin dugun galdeketa, gurasoen %90 DBHko eta Batxilergo ikasleen ordutegiak ez bateratzearen alde agertu da, hau da, oraingo ordutegia mantentzearen alde».

Hortaz, ordutegia mantentzea, «autobusa 14:30ean atetako litzateke eta DBHkoak bazkalduta gabe eta Batxilergoak garraiorik gabe geldituko lirakeke». Ordutegia aldatuta, alde batetik, «DBHkoak beranduago atera eta bazkalduta gabe etxeratuko lirakeke. Eta Batxilergoak eskola ordu gutxiago izanen lituzkete, unibertsitatera begira beraientzat hain garrantzitsuak diren ikasturte hauetan». Eta bestetik, «ordutegia aldatuta ere, ikasleak kanpoan gelditzeko arriskua argia da, DBHkoen autobusean tokia egonen balitz bakarrik sartu ahal izanen lirakekeelako». Lertxundik salatu duenez, «gobernuak esan du Batxilergo ez dela derrigorrezkoa eta gobernuak ez duela garraioa jartzeko betebeharririk». Hori «astakeria hutsa» dela dio: «ez dugu beste garraiorik, Batxilergoak nola itzuliko dira etxera?».

Sinadura bilketa

«Babesgabe» sentitzen direla dio Lertxundik, eta «Arartekora, udaletara, Hezkuntza Departamentura eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendari Nagusiarengana» jo ondotik, orain, *Change.org* plataforman garraio publikoa eskatzeko sinadura bilketa abiatu dute: «herritar guztiak gaudelako egoera honetan, Batxilergo ikasleak, unibertsitatera doazenak, medikuarengana joaten direnak, gidabaimenik gabekoak...». «Iruñea eta Tuteratik harago, mendialdea ere Nafarroa dela ikustea» eskatzen dute: «hezkuntzaz ari gara, eta gure seme-alabek beste edozein tokitako ikasleen eskubide berak dituzte, igual dio Aranokoak, Iruñekoak, Lesakakoak, Izabakoak edo Garraldakoak diren».

«ARGI DAGO NORBAIT GALTZEN ATERAKO DELA»

INSTITUTUKO GURASO ELKARTEA

«BESTE IKASLEEN ESKUBIDE BERAK DITUZTE GUREK»

INSTITUTUKO GURASO ELKARTEA

«SINADURA BILKETA ABIATU DUGU»

INSTITUTUKO GURASO ELKARTEA



Otsailaren 13an Eli eta Manex Pagolak beraien diskoa aurkeztu zuten.

Hainbat kultur hitzordu izanen dira ondoko asteetan

Larunbat honetan Artikutzako trenaren historia kontatzen duen komikia aurkeztuko dute

TTIPI-TTAPA

Osasun egoerak hala behar-tuta, herritarrek hain maiteak dituzten inauteririk gabe gelditu behar izan dute aurten. Baina horren faltan, hainbat ekitaldi iragarri dituzte udalak, kultur taldeak, euskara zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak.

Horietan aurrenekoa otsailaren 13an egindako bertso musikatuen saioa izan zen. Eli eta Manex Pagolaren disko berria ezagutzeko eta beraien doinuekin gozatzeko aukera izan zuten herritarrek.

Burnizko potoa

Hurrengo hitzordua larunbat honetan, otsailaren 27an, izanen da. Artikutzaren trenaren historia kontatzen duen *Burnizko potoa* komikia aurkeztuko dute Jokin Mitxelenak, Antton Kazabonek eta Antton Mendizabalek. Adin guztietakoentzako hitzordua izanen da eta 18:30ean Ganbaran egingen dute.

koentzako hitzordua izanen da eta 18:30ean Ganbaran egingen dute.

Ipuin kontaketa helduentzat

Martxoaren 7an, igandea, *Hego haizearen ipuinak* izenburupean Lurdes Iriandoren ipuinak kontatuko ditu Amaia Eliza-goienek. Helduentzako saioa Ganbaran izanen da, 18:00etan.

Bakarrizketa

Martxoaren 27an, *40 urte eta aldapan behera niek/n* umorezko bakarrizketa egingen du helduentzat Txikik. 18:30ean hasiko da baina aurretik txartelak erosi beharko dira. Martxoaren 18tik aurrera bost eurotan estankotan eskuratu ahal izanen dira.

Edukiera mugatua izanen dela eta segurtasun neurriak hartuko dituztela adierazi dute antolatzaileek.

Erebako mendira irteera egingen dute larunbat honetan

TTIPI-TTAPA

Mendi taldeak larunbat honetan, otsailaren 27an, Erebakora ateraldia antolatu du. Bost orduko itzulia izanen da eta 09:30ean abiatuko dira Artzandik. Herritarrentzako deialdia izanen da eta hamaikoko taldeak egingen dituzte.

Hiru gida izanen direnez, 36 lagunetara mugatuko dute. Parte hartzeko estankotan apuntatu behar da eta maskara eraman beharko da, segurtasun neurriak mantendu ezin direnean erabiltzeko. Hamaiketakoak norberak eraman beharko du.



Go!azen telesailakoak herrian eta gazteak Zahagi dantzan. UTZITAKOIA ETA F. LOIARTE

Ohiko ospakizunik gabe baina inauterien seinalea egin dute

TTIPI-TTAPA

Aurreko urteetako irudien oso bestelakoak ikusi ditugu aurten inauteri denboran. Eta inauterien faltan Mozorro Taldeak egindako bideoarekin gozatu dute herritarrek. Bakoitzi berea, ordea, irudi egin osatu dute bideoa, Mozorro Taldeak esan bezala, «ospatu-

takoak inork ez dizkigulako kenduko». Halere, inauterietan keinu egin nahi izan diotenak izan dira eta inauterietako igandean eta astelehenean guraso eta haur batzuk moztortuta atera ziren eta neurriak hartuta, zahagi dantzak ez zuen hutsik egin. Ea hurrengo urtekoak beti bezalakoak diren...

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Imanol Etxeberria da Arizkungo alkate berria

Otsailaren 12ko batzarrean bozkatu zuten 133 herritarretatik 130ek bere alde bozkatu zuten

TTIPI-TTAPA

Imanol Etxeberriaren eta Valentín Kintanaren artean hautatu behar zuten arizkundarrek eta otsailaren 12ko batzarrean botoa eman zuten 133 herritarretatik 130ek Imanol Etxeberriaren alde bozkatu zuten eta inork ez Valentín Quintanaren alde. Bertze hiru botoak baliogabe jo zituzten. Horiek horrela, Imanol Etxeberria izanen da Arizkungo alkate datozen urteotan. Etxeberriak Joseba Otondo Baztango alkatearen eskutik eskuratu zuen herriko alkate izendatzeko aginte makila bertaratutako herritarren txalo artean.

Jakin-mina zen nagusi Arizkunen. Izan ere, aspaldiko partez, herriko zinpeko alkatea aukeratzeko bozketa egin zen, abenduko hirugarren igandeko eta Errege Eguneko batzarreak hautagirik agertu gabe joan baziren ere.

Orain Irurita falta da alkate berria hautatzeko

Hamalau herritako alkateak hautatu ondotik, orain Irurita falta da alkate berria hauta-



Imanol Etxeberria Arizkungo alkatea.

tzeko. Ikusi beharko da ondo egun edota asteetan hautagirik aurkeztu den ondo bi urteetan herriko ordezkari izateko.

Bertze herrietako alkateak hauek izanen dira bi urteotan: Almandozen Pello Sarratea; Amaiurren Ixabel Aleman; Anizen Kristina Fernandez; Arizkunen Imanol Etxeberria; Arraiozen Joxelu Retegi; Azpilkuetan Aitor Iturralde; Berroetan Carlos Garaikoetxea; Elbeten Imanol Juanikotena; Elizondon Aitor Bazterrika; Erratzun Kaiet Itoiz; Gartzainen Fernando Arraztoa; Lekarozen Ernesto Prat; Oronoz-Mugairin Jorge Oteiza eta Zigan Joxean Etxeberria.

Sukaldaritza ikastaroa martxoaren 15etik maiatzaren 28ra Lekarozen

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek antolatuta, Lekarozko aterpean 215 orduko sukaldaritza ikastaroa emanen dute martxotik maiatzera.

Hilaren 15ean hasiko dira eta maiatzaren 28ra arte goizez bilduko dira, 09:00etatik 14:15era. Tartean, martxoaren 19a eta apirilaren 1etik 11ra ez dute saiorik izanen. Partehartzaileek kozinatzen ikasteaz gain, sukaldaritza bertzeko alderdi batzuei, catering-ei... buruzko jakintzak eskuratu ahal izanen dituzte. Eta, ho-

rrekin batera, lan arriskuen prebentzioa, genero berdintasuna eta informatikaren erabilera landuko dute.

Ostalaritzan esperientzia dutenei bideratutako ikastaroa izanen da eta langabetuek lehenetsia izanen dute. Hor-taz, lanean ari direnek eta ikastaroa egin nahi dutenek enplegua hobetzeko programan izena emanda egon behar dute. Informazio gehiago nahi dutenek Nafar Lansareren webgunean edo 676 35 08 52 telefonora deituz eskuratu ahal izanen dute.



JM ONDIKOL

Orakunde eta inauteri bereziak aurten

Orakunde, Egun ttuntun edo oilar dantza berezia izan dute aurten Ortzegu Gizen egunean Baztango herrietako neska-mutikoei. Zenbait herritan, oilar biziaren ordez eskulanetan egindakoa harrapatu zuten eta soziedadean edo jangelan bazkaldu beharrean, norberak bere etxean egin behar izan zuten.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---



Martxoaren 8ko elkarretaratzea duela bi urte Elizondoko plazan. JM ONDIKOL

Martxoaren 8aren inguruan ekitaldi andana prest dituzte

Eskualdeko ekimena Sara-Zugarramurdin izanen da, elkarretaratzea Elizondon eta bertso saio feminista Iruritan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8aren bueltan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, egitarau zabala antolatuta dute baztandarreketazugarramurdiarrek. Elkarrekin karrikak morez margotzeko prest daude.

Martxoaren 7an eskualdeko ekimena

Igandean, hilaren 7an, eskualdeko ekimena izanen dute

Saran eta Zugarramurdin. Eguerdian, 12:00etan, bilduko dira eta *Inposizio, inkisizioaren ginetik, herri feminista bat gira* lemapean manifestazioa egingen dute. Ondotik, aperitifa izanen dute. 16:00etan Zugarramurdiko karrikak girotzeko, kalejira feminista izanen dute, *Saretik aldarrikatzera* goiburupean. Eguna borobiltzeko kontzertua emanen dute Madam Birrots eta

oraindik zehaztu gabeko bertze talde batek.

Martxoaren 8an elkarretaratzea
Astelehenean, martxoaren 8an, 19:00etan Elizondoko plazan elkarretaratzea egingen dute, *Bakartze inposatuaren aitzinean, gora saretze feminista* lelopean.

Martxoaren 12an bertso saio feminista

Azkenik, ortziralean, hau da, martxoaren 12an, Alazne Untxalo Erregerena, Irati Majuelo Itoiz eta Saioa Alkaiza Gualar bertsolarien eskutik, bertso saioa izanen dute. Maialen Belarra Eneterreaga izanen da gai-jartzailea. Iruritako Gizar-te Bilgunea doinu eta errimez beteko da 19:00etatik goiti. Sarrera doan izanen da.

5Ga, osasuna eta elektomagnetismoa solasgai ortziralean

Osasuna osotasunean zikloaren barne, hondarreko solasaldia izanen dute ortziralean, otsailaren 26an, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Asier Arregi ingeniari agronomoa eta geobiologoak 5Ga, osasuna eta elektromagnetismoaz ariko da.

Elizondoko komisaldegitik saihasbidera bidea

Elizondoko foruzaingoaren polizia-etxeko ibilgailuentzat Irurita-Elizondo saihasbidera irteera berri bat egiteko lanak egingen ditu Nafarroako Gobernuak, bertze 12 errepiderekin batera. Elizondoko lanek 350.000 euroko kostua izanen dutela aurreikusi dute.

Bi herri-lur zatiren trukea onartu du gobernuak

Ezkaldo inguruan 3.038 m²ko herri-lur zatia Errekalde inguruko 5.228 m²ko jabetza partikularreko bertze lurzati batekin trukatzeko onartu du Nafarroako Gobernuak. Doñanean, 1.600 m²ko jabetza partikularreko lurra 4.194 m²ko herri-lurratetik aldatuko da.

TTikiei entzunez eta behatuz, elkarrekin hazi

AURREMATRIKULA

Martxoaren 1etik 15era haur eskolan. Aintzinetik ordua eskatu telefono honetara deituz: 667 80 83 95

ATE IREKI PERTSONALIZATUAK

Hitzordua hartzeko deitu konpromisorik gabe 667 80 83 95 zenbakira.



BAZTAN HAUR ESKOLA

Amezti 16. 31700 ELIZONDO. NAFARROA.
haureskola@baztan.eus



Piriniotar arrazako behien V. argazki lehiaketa martxan

Irailaren 18an eta 19an ospatuko den XXXIV. lehiaketa eta enkanterako kartel eta eskuorriko argazkia aukeratzeko

TTIPI-TTAPA

Piriniotar behi arraza eta bere haragi %100 autoktonoa gaia-ekin argazki lehiaketa antolatatu dute bosgarren urtez Baztango Udalak eta Aspina eta Conaspi erakudeek. Lehiaketaren xedea, irailaren 18an eta 19an ospatuko den Piriniotako Behi-Aziendaren XXXIV. Lehiaketa-Enkante Nazionala iragarriko duen kartel eta eskuorriko argazkia aukeratzea da.

Otsailaren 11n egin zuten lehiaketaren aurkezpena Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxeko ganbaran. Juan Kruz Iriarte udal zinegotziarekin batera, Fermin Barazabal abeltzaina, Cederna-Garalurreko Marian Zestau eta Patxi Aranguren, Aspinako idazkaria izan ziren aurkezpenean.

Ekainaren 18ra arte

Argazkiak aurkezteko epea ekainaren 18an (ortziralea) 14:00etan akituko da. Eskura aurkez daiteke Baztango Udalaren bulegoetan (CD, DVD edo pen-drive batean) edo posta elektronikoz baztan@

baztan.eus helbidera igorrita (2 MB gehienez). Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkezten ahal ditu gehienez ere, berak egindakoak eta argitaratu gabeak, baina horietako bakarra izan daiteke aukeratua.

Argazkiak behi piriniotarraren eremu naturalean ateratakoak izan behar dute eta soilik formatu bertikalean aurkez daitezke. Aspina elkarte ordekari batek, bi abeltzainek, argazkigintzan aditu batek eta Baztango udal zinegotzi batek osatuko duten epaimahaiak hiru argazki onenak sarituko ditu 400, 200 eta 100 euroko sariekkin. Horretaz gain, lehen saria lortzen duen argazkia kartelean eta liburuxkaren azalean agertuko da. Bertzeak, aipatu liburuxka horretan eta behi-azienda lehiaketaren publizitate-rako baliabideetan ere erabiliak izan daitezke, baita Baztango Udalaren eta Aspina elkartearen webguneetan ere. Sari-banaketa piriniotar behi-azienda lehiaketaren egunean egingen dute.



ERNAI BAZTAN

Aitor eta Galderri elkartasun keinua

Otsail hasieran Ankerkeriari Stop plataformak deituta, Aitor eta Galderri elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak egin zituzten Euskal Herriko herri aunitzetan. Auzitegi Nazionalak ezarritako lau urteko espetxe zigorraren aitzinean, baztandarrek «absoluzioa ez den bertze epairik ez» dutela onartuko adierazi zuten.



IKAMA

Adierazpen askatasunaren aldarria

Urriaren 12ko hainbat ekimenetan ibili ziren 12 lagun Espainia-ko Auzitegi Nazionalen deklaratzera deitu zituztenez, Lekaroz BHI ikastetxeko ikasleek elkartasuna adierazi nahi izan zieten. Otsailaren 10ean egindako elkarretaratzean, ikasleak adierazpen askatasunaren eta oinarrizko eskubideen alde agertu ziren.

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ

T. 948 452 143 · 948 452 449

info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.

V. ALSEA DE CANTERIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Elizondoko zahar etxean erabaki «ulergaitzak»

IDEA enpresaren jokaera salatu dute langileek eta elkarretaratzea egin zuten otsailaren 14an

TTIPI-TTAPA

Elizondoko zahar etxeko langileek IDEA enpresa egunetik egunera «gehiago estutzen eta mehatxatzen» ari zaiela salatu dute. Langileek «ulertzen ez» dituzten «politika joko txotxongilo» sentitzen direla eta enpresak «planteatzen dituen neurriek zentzurik ez» dutela adierazi dute. Zahar etxearen egoeraz kezka duten herritar orori «egoeraren berri eman» eta «erne egon daitezen» eskatu diete langileek. Aditzera eman dutenez, enpresatik ezarri nahi dituzten neurriek

«eragin handia» izan dezakete adinekoen zaintza-zerbitzuan. Eta argi dute ez daudela «hori onartzeko prest».

Otsailaren 11n, IDEA enpresak bilera batera gonbidatu zituen langileak. Bilkura horretan «ERTE bat aurkeztu» eta langileak «langabeziara» bidaliko zituztela iragarri zuten. Aitzineko erabakiaz gain, «bertze neurri batzuk ere aurkeztu» zizkieten, «zein baino zein zentzugabeagoa».

Batere «zehaztu ez» zituzten neurri horiek hartuz, «ERTEa-ri ostiko bat ematen ziotela»



Otsailaren 14an elkarretaratzea egin zuten langileek. JM ONDIKOL

adierazi zuten IDEA enpresako arduradunek. Baina, etorkizun batean «ERTErik ezarriko ez zutela ziurtatu gabe». Hortaz, langileek enpresak «ezkutuko ERTE bat» ezarri nahi duela «arazoari inongo soluziorik eman gabe» eta «etorkizuneko planteamendurik gabe» salatu dute.

Baztango zahar etxeko langileek enpresak «kontratuak ez berritu edo bajak ez ordezkatzear gain, mehatxatzen

jarraitzen» duela erran dute. Langileek jakitera eman dutenez, IDEA enpresako arduradunek opor egunak «gure artean ordezkatzeko eskatzen digute; eta horrek dagokiguna baino ordu gehiago lan egitea dakar». Gainera, bajarik ez hartzeko «presionatzen» ari dieten bitartean, «ERTEa bidaltzeko mehatxua» egiten diete. Hau guztia salatuz, Elizondoko elkarretaratzea egin zuten otsailaren 14an.

ALMACO BAZTAN GRUP GAMA



Martxoan, aldaketan hilabetea!

Probestu!!!!..Erakusketan ditugun dutxaontzi

eta pantailen likidazioia!! %40 %50%60

“Lurraren mailan paratzeko neurri eta kolore aunitzetakoak ditugu aukeran”



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857
www.almacobaztan.com

Ikasketa akaberako lanak egiteko bekak emanen ditu udalak

Master akaberako lanak ere onartuko dira eta aurkeztutakoen artean 500 euroko lau laguntza emanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko dirulaguntza deialdi berria egin du udalak, Nafarroako Aldizkari Ofizialak otsailaren 16an argitaratu duena. Proposamenak egiteko hila-beteko epea izanen da eta udaletxean aurkeztu beharko dira. Deialdian master akaberako lanak ere onartuko dituzte eta aurkeztutakoen artean 500 euroko lau laguntza emanen ditu udalak.

Deialdi honen helburua Baztango ikasleen artean Baztani

eta Baztango etorkizunari buruzko kezka eta interesa piztea da eta, beraiek egin beharreko lanak edo proiektuak helburu horretarako egitea. Proiektuak eta lanak bakoitzaren ikasketa arlokoak izanen dira eta helburu horretarako osaturiko batzordeak (Elizondoko lanbide eskolako zuzendaria, Lekarozko ikastetxeko zuzendaria, Cederna-Garalurreko teknikaria, Baztango alkatea eta udal idazkaria) baloratuko ditu.

2016an lehen aldiz deialdia egin zenetik denera bederatzita laguntza emanen ditu udalak.



UTZITAKOIA

Inauterien seinalea Lekarozen

Inauteri aroan ez da inon ohiko ospakizunik egin, ezta Lekarozen ere. Urtero, ortzirale eta larunbatean ospatzen dituzte inauteriak, baina aurten ezin zenez beti bezalakorik egin, larunbat goizean gazte batzuk mozorrotu eta etxez etxe ibili ziren inauterietako seinale gisa.



JASOTZAILEAK
Proiektuak, zaharberritzeak,
instalazioak eta mantentze-lanak

ASCENSORES ARGA
IGOGAILUAK

- Bizilagun komunitateetan igogailuak.
- Baserri barneko jasogailuak.
- Menpekotasuna dutenendako baliabideak.
- Elbarritasun fisikoa dutenendako baliabideak.




znorte@ascensoresarga.com
www.argaascensores.com

T. 643 93 79 22
Parrokia 15 behea
DONEZTEBE



Eraikuntza
Taldea

Informazioa:
638 68 63 82
843 99 05 43



IRUÑEA
Mutilloa-Behetiko ind.
D kalea, 13. nabea

Arlo teknikoa
Zaharberritze arkitektonikoak
Eraikin jasangarriak
Finantziario pertsonalizatua
Partekatutako proiektuak




DONEZTEBE
Parrokia karrika,
15 behea 2

DONOSTIA
Askatasunaren Hiribidea, 17,
2.solairua

SERRERIA ALEMAN S.L

- 35 eta 50 cm arteko egurra salgai sukalde ekonomikorako, berogailuetarako, egur-galdaretarako...
- Haritz gorri amerikarra, lehorra edo erdi-lehorra, paletetan.
- Paletaren neurria: 1,55m altuera x 1,05m zabalera.
- Etxera eramateko zerbitzua (tokiaren eta kantitatearen arabera).



Frantziako errep. 2-A / ERRATZU / Tel. 948 45 31 73 / M. 639 26 29 45 / serreriaaleman@gmail.com

Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM



www.silotite.com

Silo bolak egiteko plastiko berriak

Bazkak nutriente gehiagorekin
izateko

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zulatzeke gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsekitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



SILOTITE
by formipac



Silotite®. Segurtasunaren aukera

AROZ-BERRI, S.A.

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103 - www.arozberri.com

«Herrian auzolana indartzea gustatuko litzaidake»

IMANOL JUANIKOTENA TABERNA ELBETEKO ALKATEA

Alkateari laguntzen aritzetik, alkate izatera pasatu zen urte hasieran Imanol Juanikotena Taberna. Herrian eta herriarentzat «ahal den guztia» egiteko prest dago elbetearra

TTIPI-TTAPA

Azken bi urteetan alkate izan den Xabier Urreagari lekukoa hartuta, Imanol Juanikotena Taberna (Elbete, 1988) izanen da ondoko bi urteetan Elbete-ko alkate. Orain arteko taldeak egindako «lan bikainari» segida eman eta «inguruak txukun mantentzeko, herrian dauden edo sortzen diren beharrei erantzuteko eta eskaerak bideratzeko» arduraz izanen du Juanikotena.

Zaila izan da alkate izateko pausoa ematea?

Aitzinetik egina zegoen zere-nda akitu zenez, bertzeren bat behar zen segida emateko eta hutsik ez gelditzeko. Norbaitek hartu behar zuen kargua... Saltsa gustatzen zaidanez eta lehendik laguntzen aritu izan naizenez, animatu egin nintzen. Ez naiz hutsetik hasiko, esku bat botatzen ibili izan naizelako. Aitzinetik hor zebiltzanak laguntzeko prest daudela errana didate...

Lau urtez batzar nagusian ordekaririk gabe egon zen herria, baina orain segida ikusten da... Garrantzitsua da Baztango Udalera herritarren eskaerak ailegatu ahal izateko alkate bat izatea... Alkaterik gabe egotea azkena da eta norbaitek egin behar du. Nire kasuan, autonomia naiz, kamioilaria naiz eta lanordu aunitz izaten ditut, baina ahal dudana guztia egiteko prest nago. Bi urteren buruan bertze norbait sartzea espero dut.



Imanol Juanikotena elbetearra izanen da alkate ondoko bi urteetan. UTZITAKOIA

Zein izanen dira zure egitekoak bi urte hauetan?

Herri ttipia izanik lan kargak ez du Elizondon, Iruritan eta bertze herri kozkozkorretan izaten denarekin zerikusirik. Uren aferak sortzen du lan gehien, kontagailuak begiratu behar dira hiruhilabetero eta... Horrez gain, auzolanak, elizako kontuak... izaten dira eta kargudunekin moldatzen gara. Batek bakarrik egiteko

lan gehiegi da baina, elkar lagunduz gero, denen artean aisa egiten ahal den lana da. **Auzolan aunitz egiten dituzue?** Ez, arras guti, lehen gehiago egiten ziren, orain, berriz, urtean behin bakarrik. Gehiago egitea nahi nuke, baina jendeak ez du gogorik. Baztanen, orokorrean, bideak, pistak... hesten ari dira eta udalak ezin ditu denak bere gain hartu. Horiek garbitzeko

«ELKARLANEAN HERRIA ONGI MANTEN DEZAKEGU»

«AZKEN URTEETAN GAZTEAK EZ DIRA HERRIAN GELDITU ETA PENA DA»

eta zaintzeko auzolanak behar dira, indartzen saiatu nahiko nuke. Orain bi urte saiatu ginen horrekin, beti betikoak elkartzen garelako. Baina zaila da... Ea gazteak gehiago hurbiltzen diren eta herriko kontuetan sartzen diren, horretarako talde bat osatu nahian ari naiz.

Bestetan zereginik izaten duzue? Bestak gazteek antolatzen dituzte, herritarrok kioskoa muntatzen eta herria apaintzen laguntzen diegu, baina bertzerik ez.

Zer behar ikusten dituzu herrian?

Pistak hormigoitzeko eta kanadiar pasabide batzuk jartzeko beharra dago. Karretera gainean gaude eta azienda ateratzeko arriskua dago. Dirurik ez dago eta zaila da baina eskatu eskatuko dugu...

Zer helburu duzu ondoko bi urteetarako?

Orain arte taldeak egin duen lanari segida eman nahi nioke. Herria mantendu eta herritarrak egindako lanarekin kontent egotea nahi nuke, ahal den neurrian lagunduko dut. Azken batean, badira gure esku ez dauden gauzak, Baztango Udalaren menpe gaude eta...

Egunerokoan, herrian bizia sustatzen da?

Azken urteetan beheiti egin du, etxeak husten ari dira eta gazte aunitzek kanpora jo dute. Aziendarekin ez dute lanik egin nahi eta Iruñera joaten dira lanera. Ni gaztea nintzelarik, aise azienda gehiago zegoen herrian baina bizimodua aldatu egin da eta gazteek kanpora jotzen dute lan bila. Egunero joan-etorri ibiltzea ez da eroso, eta, beraz, han gelditzea erabakitzen dute.

Herrian gelditu nahi dutenendako, etxebizitza aldetik, aukerarik bada?

Bai, saltzeko etxebizitza bada. Hala ere, egia da etxe aunitz zaharrak eta haundiak direla. Gazte bakar batek hutsetik egiteko zaila da, haundiegiak dira...

Album ilustratuak sortzeko Etxepare Saria martxan da

Lanak maiatzaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira eta irabazleak 5.000 euro jasoko ditu

TTIPI-TTAPA

Haurrendako album ilustratuak sustatzeko helburuz, aurten ere martxan da Etxepare Saria. Nafarroako Toki Entitateetako Euskara Zerbitzuek antolatzen duten sariketa honi esker testua eta irudia elkarren osagarri duen eta euskaraz idatzia den lan bat diruz lagunduko dute.

Oinarriak

Sariketara aurkeztutako lanak banaka edo taldean sortutakoak izan daitezke eta egileek nahi bertzeko lan aurkez ditzakete. Albumak 20 x 21 cm baino bai-

no handiagoa izan behar du eta gutxienez 15 orrialde bikoitz beharko ditu. Testuari dago-kionez, 4.000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Hondarreko lau urteetan bekaren onuradunak izan diren idazle eta ilustratzaileen lanak alde batera utziko dituzte.

Parte hartzeko

Egileek maiatzaren 7a baino lehen albumaren maketa (testu zati eta ilustrazioekin) bidali behar dute, pdf formatuan info@etxeparesaria.eus helbidera. Horrez gain, irudi ori-



2020ko irabazlea eta epaimahaikideak.

ginalak posta arruntez ere bidal daitezke, epaimahaiak jatorrizko bertsioa ikus dezan.

Idazle eta ilustratzaileek izengoitiak erabili beharko dituzte eta gutun-azal itxi batean lanaren izenburua eta izengoitia adieraziko dituzte. Barrenean, berriz, izen-abi-zenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren kopia eta aipamen bio-bibliografikoa bildu beharko dira (lanak e-postaz bidaltzen di-

tuztenek egilearen datuak aparteko pdf batean bidali beharko dituzte).

Saria

Sari bakarra izanen da eta haur literaturan adituak direnek erabakiko dute nor den irabazlea. Onuradunak 5.000 euro jasoko ditu eta saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du. Epaimahaiak erabakia hartzeko ekainaren 30a bitarteko epea izanen du.

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

ttiipi txartela

2019-2021

DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA			
<p>%10 DESKONTUA kopia digitaletan</p> <p>Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55</p>	<p>%10 DESKONTUA produktuetan</p> <p>Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91</p>	<p>%15 DESKONTUA frenoetan</p> <p>Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98</p>	<p>%10 DESKONTUA baterietan</p> <p>Zaldubia indus. B partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25</p>
<p>%25 DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan</p> <p>%10 DESKONTUA 10 saioko bonoetan</p> <p>Santiago 14, 38 ELIZONDO T. 636 58 30 34</p>	<p>%10 DESKONTUA kartan, 30€tik gora bartela duenari</p> <p>Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19</p>	<p>%5 DESKONTUA olio aldaketetan</p> <p>Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06</p>	<p>%5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan</p> <p>T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com</p>
<p>%5 DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoan</p> <p>Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01</p>	<p>%10 DESKONTUA liburu eta ikas materialelan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik</p> <p>Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02</p>	<p>ESKAINITZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan</p> <p>Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91</p>	

ZUGARRAMURDI



1910eko plazako argazki honetan ederki ikusten da Herriko Etxea.

Joan den mendeko udal erabakien testigantza

Polita da tarteka gibelerat begiratzea eta gure aitzinekoak zer kezka zituzten eta nola bizi ziren jakitea

MARIFA ETA KORO

Polita da tarteka gibelerat begiratzea, eta gure aitzinekoak nola bizi ziren jakitea. Hona hemen udalak hartutako erabaki berezi batzuk:

1900: Aguardientearen kontrabandoa mozteko, udalak arduradun bat izendatu zuten. Tratua hau zen: Gau-lan horretan norbait harrapatuz gero, agurdiantea arduradunak gelditzen zuten, eta udalak multa kobratzen zuten.

1908: Karretera konpontzeko, kanpoko langileak etorri ziren, baina igandetan hauen eta herritarren artean borrokak

sortzen omen ziren. Borrokak mozteko, udalak erabaki zuten igandero *kokoak* (guardia zibilak) herrira etortzea.

1911: Eskale aunitz etortzen ziren herrirat, eta udalak deitutako herri bilkuran erabaki zen albintek debekatua ziela eskaleei herrira sartzea.

1920: Garai hartan udala igandetan biltzen zen, 08:00etan.

1935: Udalak erabaki zuten *primerako* haragiaren prezioa (5,50 pezeta/kiloa), baita arnoarena ere (litroa pezeta bat).

1939: Zeinalekun (Urbiako bidean) harrizko gurutze bat jartzea erabaki zen.



MARIFA ETA KORO

Inauteriei keinu ttikia egin diete eskolan

Aurten inauteriak alde batera utzi behar izan ditugu, baina eskolako haurrei keinu ttiki bat egin diete: eskolara moztortuak joan ziren, eta han film bat ikusi zuten. Ondotik, guraso elkar-teak eskainitako gosaritxo bat izan zuten. Aurtengoan ezin izan da bertzelako ospakizunik egin.



MARIFA ETA KORO

Bi ur-hargune berri ur eskasiaren kontra

Ur eskasia dela eta bi ur-hargune berri egin dituzte. Urhaundiko errekaok minutuko 40 litro ematen ditu idorte sasoiaren. Goi-bereko ardi-bordako azpiko aldeko Irakutzeko errekaok minutuan 20 litro ematen ditu. 100.000 euroko aurrekontua izan dute lanek, baina %60ko dirulaguntza izanen da.

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA BIKES
BERGAMONT BH colver LOOK

Ihauterien ordez bideoa sareratu dute aurten gazteek

Dantxarinearik trikitia entzun bazen ere, heldu den urtera arte esperatu beharko dugu kaxkabel doinuak hedatzeko

ARANTXA ETA IRAIA

Urtero egutegian ongi markatutako egunak dira ihauteriak urdazubiarrentzat. Aurten, aldiz, egoera dela eta, ezin izan dira besta hauek ospatu, berriz herri guztietan gertatu den bezala.

Bideoa sarean

Halere, hiru egun hauen goratzeko eta herrian besta hauen garrantzia erakusteko, bideo bat egin zuten gazte batzuek. Bideo hau sare sozialetan partekatu zuten, Urdazubiko ihauterien argazkie-



Aurten ez da horrelakorik izan.

kin. Dantxarinearik trikiti doinuak entzun baziren ere, heldu den urtera arte esperatu beharko dugu kaxkabel doinu eta kantuak etxez etxe hedatzeko.

Trikitixa klaseak bueltan dira Iraia Jaurenarekin

Aurten ere trikitixa klaseak ematen ditu Iraia Jaurenak ortziraletan, nesken eskola zaharrean, koronabirusaren kontrako neurrien ondorioz ezin baita eskolako eraikina erabili. Aurten bederatzik ikasle dira eta 16:30etik 19:30erat aritzen dira, hiru taldetan.

Dantxarinea berriz lasaitu da osasun neurri berrieekin

Iparraldean ezarri diren neurri berriei izan dute Dantxarinearik eraginik: berriz ere bentetako erritmoa lasaiagoa da. 30km-ko distantziara bakarrik mugitzen ahal dira lapurtarrak eta horrek bezero anitz ezin hurbildu izatea ekarri du.

5G hedagailuak paratu dituzte berriki Saran eta Senperen

TTIPI-TTAPA

Ipar Euskal Herrian 5G hedagailu andana paratu dituzte. Zehazki, Frekuentzien agentziak zabaldu maparen arabera, laurogei 5G hedagailuz goiti baimendu dituzte. Kasik denak Lapurdin dira, eta Free konpainiak du baimen gehien, oraingoz.



Lapurdin hainbat paratu dituzte.

Horixe da Sara eta Senpereko kasua. Frekuentzien Frantziako Agentzia Nazionalaren webgunean agerienez, Free konpainiak 5G antenak pausatatu ditu Sarako Hariztegiaren eta Senpereko Mirandan. Lur eremu partikularretan dira antena horiek, eta Battit Labordek eta Dominique Idiart auzapezek oroitarazi dutenez, «legez herriko kontseiluen baimenik gabe egin dezakete. Gure ahalmena mugatua da».

Hedagailua pausatzeko erabakia «kontra errezibitu» dutela dio Sarako auzapezak. «Fitsik galdetu gabe pausatuta dute eta osasunean izan dezakeen kalteaz xehetasun gehiago jakin arte luzamena eskatuz mozioa onartu genuen urte hondarrean». Bere irudiko, «horren giblean maleruski interesak daude».

Senpereko auzapezak ere «gure erabakia hedagailua ez pausatzea» dela adierazi dio TTIPI-TTAPARI: «Herriko kontseiluan mozioa onartu dugu alde ez garelara adieraziz eta

osasunean izan ditzakeen ondorioak jakin arte moratoria eskatuz. Herri elkargoari ere gauza bera eskatu diogu eta eztabaida ukan beharra dugu».

Hedagailuak Saran

Hariztegiaren kokatuak daude Sarako telefonia konpainien hedagailuak, Labordek nabarmendu duenez, «lur pribatua».

- Bouygues konpainia: 2G/3G eta 4G
- Free konp.: 3G/4G eta 5G
- Orange konp.: 2G/3G eta 4G
- SFR konp.: 2G/3G eta 4G

Hedagailuak Senperen

Senperen ere lur pribatua daude hedagailuak.

- Bouygues: 2G/3G eta 4G
- Free: 3G/4G eta 5G
- SFR: 2G/3G eta 4G

Hedagailu gehiago ere paratu dituzte: Hendaian hiru, Urruñan sei, Biriatur bat, Azkainen bi, Ezpeletan bat, Ahetzen bat, Kanbon bat...



BISITA GIDATUAK
Aldez aurretik deitu behar da hitzordua hartzeko

AURREMATRIKULA
Martxoaren 1etik 15era

LANDA
Haurtzaindegia

ZATOK GU EZAGUTZERA!

Juan Aguirre, 1 | URDAZUBI | T. (0034) 693 76 49 49
info.landa03@gmail.com

ORDUTEGI ZABALA
FAMILIEN BEHARRETARA EGOKITZEN GARA
URTE OSOAN IREKIA

Gure ttikien garapena bermatzen dugu,
bakoitzaren erritmoa errespetatuz,
inguru seguru eta goxo bat eskeiniz.



Elkartearen biltzar nagusia otsailaren 2an iragan zen Herriko Etxean. GANEX

Idazleen Biltzarraren antolaketa lanetan

Aurtengo 38. edizioa izanen da eta ereiaroaren 11tik 14ra edo urriaren 8tik 11ra egingen dute

GANEX

Jean Michel Garat lehendakariak aitzineko urteko jardunaren berri eman zuen. Biltzarraren 37. edizioa buruilaren 6an iragan zen eta osasun egoera zela eta, egun bakarera mugatu zuten. Usaian bezala, hainbat aurkezpenekin osatu zuten egitaraua. Tartean bi urterik behin banatzen dituzten Biltzarreko sariak eman zituzten, idazle edo sortzaile bat sarituz eta 37. edizioan Marie-Jose Basurko eta Koldo Ameztoi ohoratu zituzten.

Horrez gain, gazte literatura saileko irakurketa musikatuak

egin zituzten Kiribil konpainiarekin eta Arantxa Leizaogoiaren margolan eta marrazki erakusketa ere ikusgai izan zuten. Axuri'arte taldekoen eta bertze hainbat eskulangileren lanak plazan paratu zituzten ikusgai eta salgai. Usaian baino jende gutiago hurbildu bazen ere, guzira 500 bat lagun bertaratu ziren.

38. edizioa

2021eko egitarauari dagokionez, ortziralea eta larunbata haurren egunak izanen dira; igandea egileena eta astelehena, berriz, profesionalena.

Herriko istorioak liburu bilakatu dituzte 'Sarako bisaiaik' lanean

GANEX

Jacques Antz eta Marguerite Etcheverry senar-emazteek *Sarako bisaiaik* liburua aurkeztu zuten otsailaren 9an Herriko Etxean egin zen biltzarrean. Aitzinetik bertze hainbat lan plazaratu dituzte. Azken honetan, Saran gertatutako hainbat istorio eta parte bildu dituzte.

Ikasle zirela Parisen elkar ezagutu zuten 1959an ezkondu ziren senar-emazteek. Herri Migel Barandiaran eta bere lana ezagutu zuten eta hau oinarri hartuta 25 urtez



Liburuaren egileak.

herriko istorioak biltzen aritu dira. Liburua erosi nahi dutenek dagoeneko eskuragarri dute tabako-estankotan 30 euroren truke.



UTZITAKOIA

200 lagun Lizarietako lepoan

Otsailaren 14a eguerdian 200 lagun inguru elkartu ziren pasabideen itxiera salatzen. Elkarretaratzea EH Baik eta EH Bilduk deitua zen eta alderdi horietako hautetsi, parlamentari eta ordezkari politikoez gain, Sara, Etxalar, Bera, Zugarramurdi eta Urruñako alkateak ere izan dira, bertzeak bertze.

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

Uda sasoirako langile xerkatzen ditu Herri Kontseiluak

Zerbitzu teknikoak, leizeko harri lanak, berdeguneen garbiketarak eta igerilekuko sorosle lanak egingen duten langileak behar dira. Lanpostura aurkeztu nahi duten gazteek eskaera Herriko Etxera edo e-mailez mairie@sare.fr helbidera martxoaren 15a baino lehen.

«Herritarren beharra baino urrunago doa Bizilekuen Programa»

Bizitegien eraikitzearen aldetik «neurridunagoa» izatea galdegin dio herriko kontseiluak Euskal Elkargoari

TTIPI-TTAPA

Euskal Hirigune Elkargoak eskaturik, Senpereko herriak bere iritzia eman du Bizilekuen Tokiko Programari buruz. Senpereko Herri Kontseiluaren ustez, Euskal Hirigune Elkargoak proposatzen duen bizilekuen tokiko programaren egokitzea (2.650 bizitegi urtean) tokiko biztanleriak dituen beharrak baino puskaz urrunago doa.

«Nahi genuke egokitze hori neurridunagoa bizitegien eraikitzearen aldetik biztanleriaren emendatzea menperatzeko, natur- eta laborantza-eremu gutiago xahutzeko eta bigarren egoitzen fenomenoaren menean atxikitzeko. Bizitegien ekoizpen horrek ez dezan bizitegi sozialen ekoizpenaren apaltzerik ekar, gure xedea litzateke bizitegi sozialen ekoizpena, ekoizpen orokorraren %55ekoa izan dadin», aipatu du Dominique Idiart auzapezak. Senpereko Herri Kontseiluak nahi luke herrian egin beharrak diren bizitegi sozialen kopurua «%60era finkatua izan dadin eta ez %44era orain arte BTP dokumentuan idatzia den bezala eta bizitegi horiek honela banatuak izatea: %20 PLAI bizitegiarentzat, %25 PLUS bizitegiarentzat, %55 jabegora heltzeko eta PLS bizitegiarentzat».

«Urteko 75 bizitegiko ekoizpena ez da segurtatua izaten ahal»

BZP-ak pentsatua duen ekoizpena, erran nahi baita 75 bizitegi urteko, «ez da segurtatua izaten ahal. Bizitegi eremu eta lan eremuaren arteko garraio

publiko eskasiak berotegi efektua azkartuko duen auto trafikoa emendaraziko du. BZP-arekin batera garraio publikoaren garapena lagunduko dituen ekimenak pentsatu behar dira langileei egokituak diren tenore eta erritmoarekin eta nolaz ez, alde hauetan enplegua sortuz».

Eskatzailearen galdeei erantzuteko eta honen argitzeko plantan ezarria den kudeaketa partaide programaren arabera, herriek osoki parte hartu behar dute bizitegi sozialen ematean beren lurraldean eta (BRS eta PLSA) sozial jabegora heltzeko emateak menperatu. Senpereko herriak nahi luke Euskal Hirigune Elkargoak lurraldeari begira gai hau bereziki azter dezan SRU legea gauzatzean ondoko eragozpen eta ondorioak konduan hartuz, adibidez: «Itsasbaterreko gunek jasaten duen presioa eta itsasbaterreko gunearen gibelaldera mugitzen ari dena ere (Senpere gunek honetan izanki); lurra menderatzea eta jarduera ekonomikoa eremu horretan garatzea edo laborantza lurra babestea eta aktibitate horren mantentzea».

Bertze elementu aunitz atara daitezke dokumentu horretatik, orientabide ugari baititu. «Hala ere, Ipar Euskal Herriko etxebizitza-politika berbideratzeko funtsezko ardatzetan jarri behar dugu arreta. Segurtatu behar dugu proposatutako Bizilekuen Tokiko Programak, Ipar Euskal Herriak dituen etxegintzari lotutako betiko arazoak lantzen dituela», dio Dominique Idiart auzapezak.

Amotzeko eskolako neska-mutikoak baratzea zaintzen eta oiloak hazten

JEAN-LOUIS BESSONART

Duela lau urte, eskolaldi inguruko denbora baliatu nahizik, baratze bat sortua izan da animazio pedagogiko gisa Amotzeko eskolan. Urrats ekologiko batean hamabost ikasle arduratzen dira eta ekoizpenak beren burasoek erosten dituzte. Ekimen preziatu honek bertze ideia bat sortu du eta oraiakoan buraso batzuek eskainiko oilo batzuen haztea deliberatu dute, arduradun guzieren artean. Txorri ttipi batek salatu dit, hurbileko oilasko batzuen presentziak piztu lukeela ideia hori.

Lau oiloen aterpe

Irri solas honetatik kanpo, herriko langileek eraiki oiltetgia haurrek tindatu dute lau oiloen aterpetzeko. Haatik ikusiz zer deiturak emanak



Amotzeko eskolan oiloak hazten.

izan diren; Zozotte, Pipa, Clochette eta Ninette, pentsatzen ahal da ez direla oilo euskaldunak. Proiektu hori biziki interesgarria da, ikusmina sortzen duelako animalia eta ingurumenaren zaintzari buruz, haur ttipi hauen gain baitamunduhonen geroa, izadia errespetatuz. Orogen buru jakin dugu, eskolak parte hartuko duela Frantziako baratze xapelketa berezitan. Biba amotzarrak!

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



21. paxaka txapelketako lau hirukote onenak sari banaketaren ondotik, Josu Prim txabxariarekin. JUAN MARI ONDIKOL

Urtasun, Prim eta Maia garaile XXI. paxaka txapelketan

Otsaiaren 7an Iruritako Aranabia pilotalekuan jokaturako final bikainean 9-8 irabazi zieten Irigoien, Mindegia eta Itoitzi

TTIPI-TTAPA

Laxoa elkarreak antolatutako 21. paxaka txapelketako final handia otsailaren 7an jokatu zuten Iruritako Aranabia pilotalekuan. Iruritako Gorka Urtasun eta Egoitz Prim eta Elizondoko Juan Mari Maiak 9-8 irabazi zieten Erratzuko Manu Irigoien, Arraiozko Mi-

kel Mindegia eta Erratzuko Kaiet Itoitzi, lehia estu eta ikusgarri baten ondotik.

Hasiera berdindu baten ondotik (hiruna bitarte), hiru joko segidan egin zituzten gero galtzaile suertatu zirenek (3-6). Bazirudien hor hautsi zitekeela partida, baina seinara berdindu zuten berriz ere Urtasun,

Prim eta Maiak. Zazpinako berdinketaren ondotik, 7-8 aitzindu ziren berriz gorriak, baina azken bi jokoak urdinek egin eta txapela lortu zuten, azken urtetako finalikonenean.

Hirugarren posturako lehia ere estua eta polita izan zen. Iruritako Xabi Barberenak, Guillermo Etxenikek eta Miguel Angel Iñarreak 9-7 irabazi zieten Iruritako Oskar Urrutia, Arraiozko Aritz Alunda eta Iruritako Mikel Sagasetari.

Txapelaketa sariak banatzen, paxaka jokalarik eta Erratzuko alkatea den Kaiet Itoitzi eta Iruritako Josu Prim epaile eta txatxaria izan ziren. Bitxikeri moduan, lehen aldiz finala zuzenean ikusteko aukera izan zen Internet bidez.

Munduko eski txapelketan parte hartu du Aresoko Adur Etxezarretak

TTIPI-TTAPA

Duela bi urte Aren (Suedia) izandako esperientzia erreplikatu eta aurten ere munduko eski txapelketan parte hartu du Aresoko Adur Etxezarreta Rezola eskiatzaileak. Italiako Cortina D'Ampezzon jokatu den munduko eski txapelketan izan da Etxezarreta eta abiadurako bi probetan aritu da. Otsailaren 11n ez zuen supererraldoi proba bukatzerik izan eta jaitsieran, ez zuen finale-rako sailkatzerik lortu, entrenamenduetan 40. eta 39. postuetan gelditu ondotik.



Adur Etxezarreta eskiatzailea.



FOTO ZALDUA

Doneztebe Futbol Talde nagusia lehian

Ia urtebete beranduago zelaira bueltatzeko aukera izan du Nafarroako preferente mailako Doneztebe Futbol Taldeak. Denboraldiko lehen partida jokatu zuen otsailaren 12an eta 2-0 galdu zuen Rotxapearen kontra. Erregional eta jubenil mailako taldeen hasiera guttienez bi aste gibelatu du azken osasun aginduak.



ARTXIBOKOA

Ibargarai buruz buruko txapelketatik at

2019an txapeldun eta iaz txapeldun orde izan ondotik (argazkian, Gaubekaren kontra), aurten final-laurdenetako kanporaketan buruz buruko pala txapelketatik kanpo gelditu da Xabier Ibargarai erratzuarra. Gordonen kontra ez zuen bere egunik onena izan otsailaren 12an eta 3-0 galdu zuen.



Laugarren kategorian Nafarroako auto-kros txapelketa irabazi du Imanol Vicentek. UTZITAKOA

Imanol Vicentek irabazi du auto-kros txapelketa

Nafarroako txapelketa irekian nagusitu da gidari etxalartarra, laugarren kategorian

IRUNE ELIZAGOIEN | ETXALAR

Espainiako, Nafarroako zein eskualdeko hainbat auto lasterketan parte hartu du Imanol Vicentek (1994, Etxalar). Oraingo honetan Nafarroako Auto-kros Irekiko laugarren mailan aritu da eta lehenbiziko postua lortu du.

2018tik dabil auto lasterketetan Vicente. Aitzineko asteburuan Nafarroako Auto-kros Irekiko laugarren mailan lehiatu zen eta txapela buru gainean ekarri zuen Etxalarrera. Gaztearen hitzetan, auto-kros modalitatea «lurgaineko zirkuituetan egiten diren auto eta mono-plazen lasterketak dira». Vicente, zehazki, kart-kros modalitatean lehiatzen da «Nafarroan egiten den Nitokar markako kart-kros batekin». Bere ibilgailuaren ezaugarrien artean, «gibeletako trakzioa duen karreterako motobaten motorra» eta «xasis tubularreko mono-plaza» dira bereizgarri nagusiak.

Proba hauetan hainbat kategoriatan banatzen dira lehia-

kideak «gure autoaren edo mono-plaza motaren arabera». Partaide bakoitzaren irteera lekua «saikapen proba batean denbora hartuz» erabakitzen dute. Saikapenerako «bortz buelta libre» egiten dituzte eta «denbora guztiak zerrenda batean agertzen dira, denbora hoberenetik kaxkarrenera». Proba hau, alde batetik, «zenbaki bikoitiek» eta bertze aldetik, «zenbaki bakoitiek» egiten dute. Ondotik «talde bakoitzeko lehenbiziko sailkatuekin finala egiten da».

«Kopiloturik gabe»

Zirkuitua «ezaguna» denez «kopiloturik gabe» gidatzen dute proba hauetan. Gainera, Vicenteren kasuan bere ibilgailuak «eserleku bakarra» du. Lasterketa hauetan arrisku maila «baxua» dela aditzera eman du gazteak «ibilgailuek segurtasun maila handia dute, zirkuituetan segurtasun neurriak daude eta bihurtu egiten diren komisarioak». Ez hori bakarrik, lasterketa haue-

tarako edozein arrisku saihesteko «goitik beheiti suaren kontrako arropa» janzten duela adierazi du, baita «lepoa babesteko hansa paratzeko moto-kros kasko berezia eta aitzinekoek botatzen dituzten harriak eta lohia garbitzeko sistema berezia duten betaurrekoak».

Proba egin aitzinetik presatuta lanak egin behar izaten dituzte eta etxalartarrari «buruko min» handienak ibilgailua «puntuan izateak» sortzen dizkio. Nafarroan entrenamenduak egiteko «zirkuitu bakarra» dagoela aipatu du, Mendabiakoa. Hala ere, lasterketa denboraldian «proba bat bertzearen gibeletik izaten dugu eta ez dugu entrenatze-ko modurik».

Urte batean «egin daitezkeen lasterketa guztiak» egiten dituela adierazi du. «Batez ere Nafarroako lasterketak egiten ditut, Espainiako txapelketaren bat eta eskualdeko Slalom gehienetan» parte hartzen du Imanol Vicentek.

Auto lasterketetan etxalartarentzat errazena auto-kros lasterketa bat ikustean «bertan parte hartzeko gogoia piztea da». Bertzalde, autoekiko zaletasunean zailena «ibilgailua prestatzea eta mekanika arazoak konpontzea» dela azpimarratu du, «beti dago zerbait egiteko eta etxean eginda ere diru aunitz gastatzen da ibilgailua prest izaten».

Nafarroako klub arteko mendi lasterketen txapela Berroetan jokoan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioak 2021. urteko Nafarroako mendi lasterketen zirkuituaren berri eman du. Eskualdeari dagokionez, osasun egoerak kontrarik agintzen ez badu, maiatzaren 30ean, Berroetako IV. Mendi Maratoi Erdia antolatuko du Berroetako Mendi Elkarteak. Proba honetan, Nafarroako klub arteko mendi lasterketa txapelketa ere erabakiko da. 21.600 metro luze eta 1.274 metroko desnibela duen proba izanen da. Antolaketa lanetan dabilen taldeko Rafael Arretxeak ttipi-ttapari jakinarazi dioenez, «gaur gaurkoz, osasun neurriak betez, gisa honetako probak antolatzea posible da eta horretan ari gara. Momentu honetan gehienez 125 korrikalarik parte har dezakete, baina ikusiko dugu hemendik maiztza nola aldatzen den egoera eta zer egiten ahal dugun».

Lasterketa honen aitzinetik, egutegiko lehen proba maiztza 2an egingen dute Monrealen. XII. Extreme Higa de Monreal lasterketa antolatuko du Elomendik. Bananako mendi lasterketa txapelketa, berriz, irailaren 19an izanen da Uharteko Arakilen.



Berroetako I. Mendi Maratoi Erdia.

OTSAILAK 25 - MARTXOAK 11

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

LEITZA Pleura taldea

Malerreka, Baztan eta Leitzaoko gazteek osatutako Pleura taldearen kontzertua. Herri Aretoan, martxoaren 13an, 19:00etan. Sarrerak martxoaren 1etik aurrera salgai Maimurren eta Astizen.

KONTZERTUAK

LEITZA

Bi(zi) hotzak

Mikel Illarregi eta lone Gorostazurekin. Herri Aretoan, otsailaren 26an, 19:00etan.

Lapurket(ari)ak

Maite Arroitauregi musikariaren eskutik. Atekabeltzen, otsailaren 27an, 19:00etan.

Pleura taldea

Herri Aretoan, martxoaren 13an, 19:00etan. Sarrerak: Astiz eta Maimurren salgai bost eurotan.

IKUSKIZUNAK

BERA

'Txomin eta Txistuman deskontzertuan' ikuskizuna

Ekitaldi familiarra. Kultur etxean, otsailaren 27an, 18:30ean. Sarrerak: Agara prentsan salgai hiru eurotan.

IRURITA

Bertso saio feminista

Alazne Untxalo, Irati Majuelo eta Saioa Alkaizaren eskutik. Gizarte Bilgunean, martxoaren 12an, 19:00etan.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Sotoan gordeak' lana solasgai

Miren Gorrotxategi idazlearen eskutik. Arizkunenean, otsailaren 25ean, 18:30ean.

'Osasuna eta elektromagnetismoa'

Asier Arregi ingeniari agronomoa eta geobiologoa hizlari. Arizkunenean, otsailaren 26an, 18:00etan.

LESAKA

Etxebila ikerketaren emaitzak

Ladis Satrustegi, Eneko Larrarte eta Garazi Conderen eskutik. Harriondoan, martxoaren 1ean, 18:00etan.

LEITZA

Irakurketa feministak

Aroa Uharteren eskutik. Atekabeltzen, martxoaren 4an, 18:30ean.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Kantu herrikoiak

Arizkunenean, martxoaren 17ra arte, asteazkenetan, 18:30etik 20:30era.

LEKAROZ

Sukaldaritza ikastaroa

Aterpean, martxoaren 15etik maiatzaren 28ra, 09:00etatik 14:15era.

BAZTAN

Mutildantza erakusleendako ikastaroa

Ortiziraleetan 19:00etan eta larunbatetan 11:00etan.

Mutildantza ikastaroa

Ortzegunetan, 19:00etan. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

ARIZKUN

Kirikoketa eta txalaparta ikastaroak

Iraupena: 12 ordu. Informazio gehiago: 676 20 44 30. Gamioarrean, astearte eta ortzegunetan 16:00etatik goiti.

IRTEERAK

LESAKA

Arbolaren Eguna

Otsailaren 27an, plazatik abiatuta, 09:00etan.

SARA-ZUGARRAMURDI

'Inposizio, inkisizioaren gainetik herri feminista bat gara' ekimena

Martxoaren 7an, 12:00etan.

ITUREN

Malerreka-Bertizarana lila-toia

Martxoaren 6an, 11:00etan plazatik abiatuta.

EKITALDIAK

ZUGARRAMURDI

Kalejira feminista

Martxoaren 7an, 16:00etan.

ELIZONDO

Elkarretaratzea

Martxoaren 8an, 19:00etan, plazan.

DONEZTEBE

Malerreka eta Bertizaranako mobilizazioa

Eskola pareko biribilgunean, martxoaren 8an, arratsaldean.

ERAKUSKETAK

BERA

'Ibaiko bertze arrainak'

Garbigunean, astelehenean, ortziralean, 12:00etatik 15:00etara.

Nire aukera

«Hezitzaile eta ikasleek elkarrekin ikasten dugula ohartu naiz»

ITZIAR IRIGOIEN PERURENA HEZITZAILEA ETA AHOULKULARIA



Hezitzailea, euskaltzalea, txistularia eta kantaria da Itziar Irigoien Perurena (Doneztebe, 1969). Herrian eta inguruan gutxi dira ezagutzen ez dutenak, mugimendua non, Irigoien han izaten baita.

Elkarrengandik ikasiz

Irakaskuntza du aspaldian lanbide. 16 urte zituela hasi zen klase partikularrak ematen eta orduz geroztik batetik bertzerara ibili da: «Altsasu, Olazti eta Donezteben musika eskoletan txistu irakasle ibili nintzen; gero, Euskara eta Musika ematen Bigarren Hezkuntzan; ondotik, Lehen Hezkuntzan; eta orain unibertsitatean».

Urteotan guztiotan bere lanak ez du nekatu eta «erronkaz beterikoa» dela iruditzen zaio. Hortaz, «ikasleak gustura egonez ikasteko, irakatsi beharrekoa munduarekin lotzeko, ikasteko grina pizteko, parte hartzeko bideak emateko...» eginahalak eta bi egiten ditu.

Trukean, eman adina jasotzen du: «hasi berritan irakastea

nuen helburua, baina urteak pasatu bezala elkarrekin ikasten dugula ohartu naiz».

«Eraldaketa garaia»

Esperientziak hezkuntzaz zuen ikuspegia aldarazi eta, modu berean, irakats metodologietan gertatutako aldaketak ezagutzeko bide eman dio: «eredu pasibotik heldu gara (ikasleak informazioa jasotzen du) eta proaktibora goaz (ikasleak erabakitzen, sortzen, eraikitzen du)».

Informazio eta Komunikazio Teknologiai garatzearekin batera, «irakasle on egiteko aldatuz» joan da eta horretan egungo hezkuntzak «eguneratzeko beharra» duelakoan dago doneztebarrak: «Teknologiarekin gertatu dena argi

«EGUNERATZEKO ALDERDI AUNITZ JORRATZEN ARI DA ESKOLETAN»

gelditu da. Tresnak aspalditik eskura genituen, baina oraindik ere teknologia 'berriak' deitzen zaie, noiz arte izanen ote dira 'berriak'? Egoerak hala behartuta irakasleok di-dabatean eguneratu gara. Eguneratzeko alderdi aunitz jorratzen ari da eskoletan: emozio hezkuntza, hizkuntza plana, hezkidetzeta edo berdintasuna...».

Ikasgelatik aholkularitzara

Aldaketa orok ezinbertzekoa du formakuntza eta horretan ari da aurten doneztebarrak, Berdintasan Departamentuan aholkulari. «Irakasleei online formazioa eman, ikastetxeekin bilerak egin, arlokako proiektuak garatu, hurrengo hiru urtetarako plan estrategikoa prestatu...» egiteko aunitz izaten dituzte.

«Ikasleek egunero ematen duten naturaltasuna eta freskototasuna» falta dituen arren, gustura dabil Irigoien. Gainera, «aldatzeko aukera une egokian» ailegatu zaiolakoan dago: «orain arte ikasgelan sustatzen nituen elkarlana, talde-lana eta ingurunearekin haremana erabat baldintzatuak gelditu dira eta esperientzia hau ikuspuntua aldatu eta aberasteko baliagarri zait». Momentuz «urtebetez» ariko da horretan eta «maiatz aldeira» erabakiko du horretan segitu edo ikasgelara bueltatu.

40 urte herriko karririk girotzen

Ibilbide guztian, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo, musika izan du bidelagun doneztebarrak. Beti doinu eta letra artean ibili izan da: «ama kantaria zen

eta eskura jarri zigun tokadiskoa eta teklatu elektrikoa». Apezek solfeoa erakutsi ondotik, Basilio Saroberekin txistua ikasten hasi zen eta 12 urterekin, Migel Makuso irakaslearekin, lehenbiziko kalejirak egin zituen. Gerora, Pablo Sarasate kontserbatorioan txistu ikasketak egin zituen: «17 urterekin Doneztebeko Banderaren dantza jotzeko erreleboa hartu nuen eta 25 urte nituelarik 'Trapatan' izeneko dantza galdua berreskuratzeari ekin genion herriko dantzariekin batera».

Orduetik, Eguberrietan, maiatzean Bestaberri Egunean eta San Pedro bestetan biltzeko ohitura izan dute. 40 urtez bere txistua aditu da Doneztebeko karriketean. Iaz, ordea, doinu guztiak itzali ziren: «ezin izan ginen atera, baina aurten atera ahal izatea espero dut».

Zinegotzi

Azken urtean bertze ardura bat gehitu du Irigoienek zerrendara: «taldera bildu den azken zinegotzia naiz, martxoan urtea beteko dut». Bereziki «Agorreta musika eskola, kultur agenda eta sare sozialak» kudeatzen ditu, «erabakiak taldean hartzen ditugun arren». Hainbat izan dira hondarreko urtean eskuartean izan dituzten zereginak: «ur depositua, Intzakardiko parkea berritzea, argiteria, karriketako moldaketak...». Orain, berriz, «oinetako eta trafikoa arteko oreka ezarriko duen ordenantza eta eskolako estalpea» dituzte buruan.

Hezitzaile eta ondoko belau-naldien eredu da Irigoien, dakien guztia partekatzeko eta ahal guztian laguntzeko prest izaten delako. Prestutasun horri esker, «bakarka-bakarka eta lehen-tasunak markatuz» denera ailegatzea lortzen du. Eta, ez pentsa aisialdirako denborarik izaten ez duenik: «asteburuetan familia eta lagunekin planak egiten ditut, erlojuari begiratu gabe bizitzen saiatzen naiz».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

DONEZTEBE. Merkatarien karrikako 22. zenbakian, 1. solairuan etxebizitza salgai edo errentan emateko. 100 m². 3 logela, balkoi handia, trastelekua. Dena kanpora begira eta dena ongi paratua eta berritua: lurra berritua, komuna berritua, bigak bistan, leiho berriak, teilatua berritua... Etxebizitzak bi sarrera ditu. Komunitateko gasturik ez du. ☎617 79 24 01.

LESACA. Azkaine karrikako 3. zenbakian, 45 m² dituen apartamendua salgai. Mobleztatua eta hagitz egotira olean. ☎628 04 20 47 / 647 44 25 09.



LESACA. Bi bizitzako etxebizitza salgai, 7.000 metro koadroko eremuarekin. ☎948 38 70 93 / 651 62 10 15.

IRURITA. Baseria eta pisua salgai. Prezio negoziagarria. Partikularra. ☎693 69 49 76 (Jose M^a).

GAZTELU. Estreinatua gabeko apartamentua, kotxea aparkatzeko mararekin salgai (78.000 euro). 18.000 m²ko terrenoa duen borda ere salgai, ura eta argiarekin. ☎640 07 65 75 (Jose).

ERRENTAN EMATEKO

LESACA. Pertsona batentzako logela bat errentan emateko. Erretzaila ez dena. ☎678 85 50 56.

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Mobleztatua, igogailua eta berogailuarekin. ☎666 38 80 63.

DONEZTEBE. Erreka ondoan etxe bateko pisuak errentan emateko. Goikoak 85 m² ditu: 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. Baratz zati bat erabiltzeko aukera. 550 euro. Behekoak 75 m² ditu, sukaldea eta hiru logela. Baratz erabiltzeko aukera. 450 euro. ☎687 63 27 37.

KONPARTITZEKO

DONOSTIA. Amara auzoan konpartitzeko den pisu batean ikasle batendako tokia libre dute. ☎618 96 33 90.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO



ALKAIAGA industrialdean lokala errentan emateko. ☎678 26 84 44.



ALKAIAGA industrialdean tailer mekanikoa errentan emateko, jubilazioagatik. ☎678 26 84 44.

LESACA. Albistur karrikan lurpeko garajea errentan emateko. ☎618 96 29 37.

LURRAK/ORUBEKA

DENETARIK

ETXALAR. Baratza egiteko belai txiki bat nahi dute, pozoirik ibili gabekoa. ☎636 18 15 46.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,01
- 1.koa 3,89
- 2.koa 3,74

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 3,98
- 2.koa 3,84

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,00/4,10
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,70/6,00
- 8-10 kilokoak: 5,10/5,60

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 57 €

Zerri gizona 1,141€

Zerramak 0,500€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua otsailaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

LANA

ESKARIAK

ELIZONDOn lan bila. ☎644 54 14 23.

BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK inguruan emakume bat lan bila. Pertsona helduak edo haurrak zaintzeko prest. Esperientzia handia duena. Interna edo externa moduan aritzeko prest. ☎602 49 37 58.

Eraikuntzan eta nekazaritzan esperientzia duen **gaztea lan bila**. Gidabaimen guztiak. ☎663 59 17 76.

ESKAINTZAK

BERA. Sukaldaritzan esperientzia duen pertsona bat behar dute Larungo benta batean. Ez da jatetxea. Frantsesez pixka bat jakitea garrantzitsua da. Martxo hondarretik irail hondarrera arte, sei hilabete. ☎607 56 60 22.

BERA. Beolaetxea bentan, arropadendan aritzeko neska bat behar dute, frantsesez dakiena, eta moda gustuko baldin badu, hobe. Urte bateko kontratua. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

ETXALAR. Emakume euskaldun batek orduka adinekoak zaintzen lan egingen luke. ☎677 13 87 18.

ANIMALIAK

SALEROSKETAK



LEITZA. Txerrikume pintoak salgai. Bizirik edo labean erretzeko prestatuak. ☎690 98 61 18

MOTORRAK

SALGAI

Suzuki Vitara HDI salgai. 3 atekoa. Egoera onean. ☎616 19 80 16.



Volkswagen Transporter salgai. 2011koa. 213.110 km. 3 plaza. Kendu daitekeen kajonerarekin. Prezioa: 11.000 euro. ☎646 07 79 14.

BAZTANGOZA
TAILERRA



Peugeot 207 hdi.
64.000 km



Corvus utv 900
km 0



Volkswagen Touran 2000 tdi 150.
7 plaza

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
baztangoiza@yahoo.es
www.baztangoizataillerrak.com

GANIX
Tailerra



948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN
TAILERRAK





RENAULT CLIO dci 90 CV
2017urtekoa - 74.000 km - 8.950 euro
www.talleressantesteban.com
DONEZIEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

DENETARIK**SALEROSKETAK**

Sukaldeko txokorako jarlekua
(rinconera) salgai. ☎676 38 94 81.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 451 426 (Joxean).



Gasza egiteko **zimitzak** salgai. 3 neurritakoak. Arras egoera onean. ☎948 58 10 39.

Bizikleta elektriko zuria, Littium, Berlin modelo, salgai. 2019an eresia. Oso egoera onean! Aproposa



herri edo hirirako. Bere bi zakutxoekin. Deitu edo idatzi Whatsapez. ☎666 26 41 16.

GALDU-AURKITUAK

LESAKA. Lesakako igerilekuaren eta Igantzi aldera dagoen Kattu ostatuaren arteko bidean Jeep markako auto baten giltzak galdu dira. Aurkituz gero, deitu. ☎666 41 90 45.

Bulatxiki inguruan mendiko goretex **eskularruak galdu** dituzte. ☎686 54 46 45.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Ikusi sail honetako iragarkiak Interneten:
<https://erran.eus/sailkatuak>



744 484 361


BERAKO UDALA**ALKATEAREN EBAZPENA
-HIRIGINTZA-**

Berako Udaleko Alkateak, urtarilaren 21ean emandako 8/2021 Ebazpenaren bitartez, 10. poligonoko 57. eta 58. partzeletako (2. eta 3. partzelak, SK2 sektorea, UE10) —Kaxerna Karrika— xehetasun azterlana, onetsi zuten hasiera batez.

Espedientea jendaurrean izanen da hogeit lanez, dagokion iragarkia N.A.O.n argitara ematen denetik (iragarkia argitaratua 32. N.A.O.ean, 2021eko otsailaren 11n).

Bera, 2021-02-11
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

BERAKO UDALA**HIRI-JARDUKETARAKO
PLAN BEREZIA HASIERA
BATEAN ONESTEA**

Berako Udaleko Alkateak, otsailaren 1ean emandako 14/2021 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuten 9. poligonoko 264. partzeletarako (Geltoki karrika 7) Hiri-jarduketarako Plan Berezia hasiera batean onestea eta espedientea jendaurrean jartzea hilabete bateko epean, dagokion iragarkia NAO.n argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2021-02-15
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

KONTATU KONTUAK

Orakunde egunaren seinalea Anizen. Otsailaren 13an, Orakunde egunaren seinale gisa Anizko haurrek arratsalde pasa polita izan zuten. Egun guztiko besta izan beharrean, arratsaldean jostetako izan zituzten, aurten artio egin izan diren batzuk egin, bertze batzuek egokituz eta berriak sartuz. Josteten ondotik txokolate jatea izan zuten. Nahiz egun erdiko besta izan, eta desberdina, xarmanki pasatu zuten. Argazkia eta testua: Maitane Maritorea.



Berako jubilotekako kideen inauteriak. Otsailaren 15ean, inauterietako ospakizunari keinu egiteko, moztarok jantzi zituzten Berako jubilotekan. Prebentzio neurri guztiak mantenduz dantzatu, kantatu eta goiz-pasa polita egiteko aukera izan zuten.

URTEURRENA

**Beatriz
MANTEROLA
PETRIRENA**

Sunbillan, 2020ko otsailaren 9an
I. urteurrena

Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Antonia
GOLDARAZENA OTEGI**

Lesakan, 2013ko otsailaren 16an
VIII. urteurrena

Ama zenbat egin duzun gugatik
orain ere laguntzen ari zara zerutik
zutaz oroitzean negarra
heldu zait bi begietatik
mila esker ama, bihotz-bihotzetik.



ZURE FAMILIA, AGUR ETA IKUSI ARTE

OROIGARRIA

**Joxe
OLAZABAL IRASTORZA**

Lesakan, 2021eko otsailaren 13an

Nork mugitzeko indarrak gabe
gelditu da Beko Errota.
Arima nonbait joan da eta
ezin du fruiturik bota.
Hiru alaben aita bikaina,
hobetu ezin den nota,
zure emaztea, zure herria,
zutaz hain harro dago ta,
estropada hau bukatu duzu
arraunak gora igota.



OLAETXEA-ALTZUGARAI FAMILIA

URTEURRENA

**Esperanza
ANZIZAR IRIARTE**

Sunbillan, 2020ko otsailaren 12an
I. urteurrena

Batasun honek iraun dezala
gure bizitza guziko
azken orduan sartu artean
zurekin zeruan betiko.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Joxe
OLAZABAL IRASTORZA**

Zelaiburutik Beheko Errotara,
senar, atta, attona, gure bikingo maitea;
sobera abudo joan zara,
baina zure umore ona
beti gordeko dugu bihotzean.
Gauza asko erakutsi zenigun
eta saiatuko gara praktikan jartzean,
baina zure baratza eta egur pila ordenatu hori
ezingo dugu inoiz hobetu.

**Aupa Hondarbi!
Harro zutaz beti.**



ETXEKOAK

OROIGARRIA

**Juanito
LASARTE ZUBITUR**

Leitzan, 2020ko abenduaren 18an

Ez negarrik, ez adiorik
eskerrik asko baizik
senar, atte, attun
anai, osaba, bide-lagun
nork esaten du, bizitza hau itzaltzen denean
joan egiten zarela?
Oroimenean, bihotzean
Ez negarrik, ez adiorik
eskerrik asko baizik.



Familiaren osasun egoera zela eta, ezin izan genuen deus ere egin. Agur duina eta goxoa egiteko, **otsailaren 28an, 11:00etan, Leitzako elizan**, errautsak bertan direla egingen dugun elizkizunera gonbidatzen zaituztegu.



**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita **BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere

**24 ORDU
365 EGUN** | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

SORTZEAK

- **Harri Gereka Otxandorena**, Donamariakoa, urtarrilaren 19an.
- **Lukene Mikelarena Larque**, Berakoa, otsailaren 13an.
- **Oier Telletxea Tejero**, Lesakakoa, otsailaren 10ean

HILBERRIAK

- **Francis Bidondo**, Sarakoa, urtarrilaren 12an, 76 urte zituela.
- **Raphael Tapia**, Sarakoa, urtarrilaren 12an, 85 urte zituela.
- **Manuel Telletxea Goikoetxea**, Ezkurrakoa, urtarrilaren 29an.
- **Felisa Irurueta Goienetxe**, Elizondokoa, otsailaren 4an, 73 urte zituela.
- **Jose M^a Uranga Telletxea**, Zugarramurdikoa, otsailaren 4an.
- **Joxepa Agesta Indakoetxea**, Berakoa, otsailaren 8an, 70 urte zituela.
- **Rosa Arburua Bengotxea**, Berakoa, otsailaren 13an, 52 urte zituela.
- **Joxe Olazabal Irastorza**, Lesakakoa, otsailaren 13an, 76 urte zituela.
- **Milagros Lujanbio Loiarde**, Goizuetakoa, otsailaren 16an, 93 urte zituela.



«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**

Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

URTEBETETZEAK



Goizuetako **Beñat NARBARTE Makatzagak** 9 urte beteko ditu martxoaren 6an. Zorionak gure pilotariari familiaren eta batez ere Anartz, Maider eta Elaiaren partetik.



Gazteluko **Maider NARBARTE Urrozek** otsailaren 28an 3 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik. Ongi pasa eguna eta segi beti bezain alai! Muxu bat!



Goizuetako izeba **Xunek** eta **Maiderrek** otsailaren 23an eta 28an urteak beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki Anartz, Elaia eta Beñaten partetik.




Aunitz urtez, **Aiur!!!** Otsailaren 12an 8 urte beteko ditu gure etxeko anaia handiak eta tikiak ez dio begirik kentzen. Oso harro gaude zutaz txapeldun. Muxu pila familiaren partetik, *attatto* etortzen denean ospatuko dugu *atope!*



Aitor eta **Maddi Baleztena Truebak** 7 urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak eta aunitz urtez Eratsun, Sunbilla eta Arantzako familiaren partetik. Zazpina muxu potolo!!!!



Zorionak **Iradi!** Martxoaren 1ean 5 urte beteko dituzu. Mila muxu eta besarkada potolok zure familiaren partetik. Ongi pasa zure eguna!



Arraiozko **Luken Laurnagarai Perotxenak** eta Iruritako **Saioa Perotxena Danborienak** 4 eta 13 urte beteko dituzte martxoaren 8an eta 16an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik! Muxu aunitz!



Iratxe Loiarde Petrikorena igantziarrak otsailaren 19an 17 urte bete ditu. Zorionak etxeko partetik. Segi horrela!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAREN **bulegora** etorrita edo **postaz** argazkia eta testua gutun-azal batean helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.


Ordaintzeko: 5 € argazki tikiak eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

PLAZAN BAZAN



JESUS, MARIA ETA JOSE BETI JAN ETA BETI GOSE

NESKA-MUTILAAAAAK...



Erreparatu ongi irudi hauei. Hau da kuxidadeal bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa bota, arrautza bat puskatu...), eta jan ere egin dute. Konturatzen al zara zer jan duten? Begiratu ongi eta asmatuko duzu.

Marrakziak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

MAHAIAN DAGOEN EZER EZ UKITU


GONBIDATUAK DITUGU ETA



1.
2.
3.
4.
5.
6.

DUTXARA!

Osatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.



OTSAILEKO SUDOKUA

Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartela

rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

775

aleko irabazleak >



- Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Inaki Berho Apezetxea | ORONOZ-MUGAIRI
- Onddo Ta Punto - Kamiseta bat
Izaskun Bertiz Telletxea | BEINTZA-LABAIEN
- Martiko - Lote bat
Fernando Artieda Irazoki | BERA
- Galaxy Park - 2 sarrera
Dihana Erbiti Larralde | LEITZA
- Lesakako kiroldegia - 2 sarrera
Inaki Martinez Lizaso | DONEZTEBE
- Arkupe gozotegia - Lote bat
Maite Maisterrena Aleman | AMAIUR
- Mauka - Disko bat
Mirari Maiz Goñi | ARANTZA
- Mauka - Disko bat
Leire Tejero Catalan | LESAKA

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

OKILLE TAILERRA

okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

KARTING INDOOR IRUN

www.kartingindoorirun.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera


ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

LIBURUAK



- Valerium Tremens
- Bidasoan Gora

elkar

www.elkar.eus

LAGUNTZAI LEAK



www.ibaizabal.com



www.arkupegozotegia.com